



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko uztailaren 19a

80. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa. Aurkeztutako zuzenketa (35. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (36. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak agertzen du bere borondatea dela Iruñeko Udalak berrazter dezan Nagore Laffageren omenezko antzezlanaren estreinatze baimena ukatzeko erabakia. Eledunen Batzarrak onetsia (37. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Justizialari langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (37. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen baitu Espainiako Gobernuak onetsi nahi duen bekei buruzko Errege Dekretuaren zirriborroa dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (38. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du “Médicos sin Fronteras” erakundeak egiten duen lan humanitarioa eta elkartasuna adierazten die lan hori egitean erasoak pairatu dituzten pertsonen. Eledunen Batzarrak onetsia (38. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zenbait neurri abian jar ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (39. or.).

- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak esku-hartze aktiboa izan dezan, INASA enpresaren egungo jabearen eta inbertsio-taldearen arteko akordio bat ahalbidetzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (44. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak positiboki baloratzen du Polizia Kide-go Nazionaleko eta Guardia Zibileko funtzionarioek urteetan eginiko lana. Eledunen Batzarrak onetsia (44. or.).

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administra- zioa berrantolatzekoa.**

### **ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Lege proiektuko artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Foru Lege proiektua 2012ko azaroaren 9ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### LEHENENGO ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

#### **1. ZUZENKETA**

##### **ARALAR-NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“1. Foru lege honen xedea da ezartzea zein diren Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioaren berrantolaketa agindu behar duten oinarriak, betiere printzipio hauekin bat: subsidiarioritasuna, eskumenen argitasuna, nahikotasun finantzarioa, aurrekontu-egonkortasuna, lurralde-elkartasuna eta itzulezintasuna. Berrantolaketa horrek berarekin dakar, halaber, toki entitateekin zerikusia duten beste alderdi batzuen egokitzapena, eta lege proiektu honek alderdi horiei ere heltzen die: entitateen finantzaketa, herritarren parte-hartzea eta eskumenen banaketa.

2. 'Eskumenen argitasuna' horrela ulertuko da: toki entitateek, horrela dagoelako zehaztuta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legean, Foruaren Hobekuntzan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta lege honetan bertan,

nahiaez bete behar dituzten eginkizun politiko eta administratiboaren definizio zehatza.

3. 'Nahikotasun finantzarioaren' printzipioa honela ulertuko da: toki entitate batek gaitasun ekonomikoa izatea berari exekutatzeko dagozkion eskumenei modu egokian aurre egiteko, bai eta eskuordetu zaizkion beste eskumen guztiei ere.

4. Foru lege honek Nafarroako toki entitateen egitura berria ezartzeko mekanismoak planteatzen ditu, bai eta egitura hori osorik eta erabat inplantatzeko prozedurak eta programazioa ere, eta horrek Foru Komunitaterako toki mapa berria taxutzea dakar berekin.

4. Aurreikusitako toki entitateetako bakoitzerako foru lege honetan ezartzen dena betetzea eta unean unean indarra duten legezko arauekin bateragarri egitea Nafarroako Parlamentuaren eskumena izanen da, behar diren lege-arauak aldatuz, eta Nafarroako Gobernuari dagokio, berriz, erregelamenduz garatzea.”

Zioak: Foru legea eskumenen argitasunean eta nahikotasun finantzarioan oinarritzea, eta alde batera uztea “iraunkortasun finantzarioaren” printzipioa, askotan ez baita aurreko printzipioekin bateragarria. Era beran, printzipio horien interpretazio-zalantzarik ez izateko, zuzenketak berak definitu egiten ditu printzipiook. Printzipio horien ondorioz, legea ezin da mugatu –jatorrizko testua ere ez da mugatzen– berrantolaketa administratibo batera, bazik eta adierazten du egokia dela zehaztea saihestezinak diren finantza- eta eskumen-gai batzuk.

#### **2. ZUZENKETA**

##### **BILDU-NAFARROA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“1. Foru lege honen xedea da ezartzea zein diren Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioaren berrantolaketa agindu behar duten oinarriak, betiere printzipio hauekin bat: subsidiariotasuna, eskumenen argitasuna, nahikotasun finantzarioa, aurrekontu-egonkortasuna, lurralde-elkartasuna eta itzulezintasuna.

2. Foru lege honek Nafarroako toki entitateen egitura berria ezartzen du, bai eta hura osorik eta erabat ezartzeko prozedurak eta denbora programazioa ere, hartara Foru Komunitaterako toki mapa berria taxutzeko.

3. Aurreikusitako toki entitateetako bakoitzerako foru lege honetan ezartzen dena betetzea eta unean-unean indarra duten legezko arauekin bateragarri egitea Nafarroako Parlamentuaren eskumena izanen da, behar diren lege-arauak aldatuz, eta Nafarroako Gobernuari dagokio, berriz, erregelamenduz garatzea”.

Zioak: Ezin da iraunkortasunaz hitz egin, legeak berak ez baitu zehazten zein izanen diren ez eskumenak, ezta toki-entitateen diru-sarrereren iturriak ere.

## BIGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### **3. ZUZENKETA**

#### **ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen erreforma betea da, alderdi asko hartzen dituena eta artikulua asko aldatzen dituena, eta hori ezin da batera planteatu. Egokiagoa da legeari aldaketa partzialak egingo dizkieten artikulua gehiago sartzeara.

### **4. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuaren bigarren artikuluko Bat atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Bat. 3. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“3. artikulua:

1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute:

a) Kontzejuek.

b) Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak, Aezkoa Ibarreko Komunitateak, Erronkari Ibarreko Mankomunitateak eta Zaraitzu Ibarreko Unibertsitateak.

c) Udal batasunek.

d) Mankomunitateek.

e) Eskualdeek.

2. b) letran jaso ez diren tradiziozko batasunek zuzenbide publikoko entitatearen izaerari eutsiko diote beren usadiozko eginkizunak betetzeko, baina ez dira toki entitateak izanen.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak foru lege honi jarraikiz gaurkotuko ditu horretarako sortutako toki entitateen erregistroko inskripzioak, bertan adieraziz erregelamenduz ezartzen diren datuak”».

Zioak: a) Toki entitateen tipologia soiltzeko eta arrazionalizatzeko, kategoria berean bildu behar dira udal batasunak eta zerbitzu administratiboen batasunak. Gaur egun, eta proiektuan ere berdin, beren arteko aldeak eta mankomunitateekin dituzten aldeak gutxi dira, eta definizioak nahasgarriak dira. Biztanle gutxiko udaletarako foru dekretuz ezartzen den zerbitzu administratiboen bateratze behartuari kategoria bakar gisa eutsi behar zaio; beste zerbitzu batzuen bateratzea, era guztietako udaletarakoa, eskualdeen bidez egin behar da; mankomunitateak, berriz, beren borondatez elkar-tzen diren udalek osatu behar dituzte.

b) Proiektuan agertzen den toki partzuergoen figura berriak ez du zentzurik; izan ere, ez du problemarik konpontzen, eta, aldiz, sor ditzake. Toki entitatearen izaera ematen bazaie partzuergo batzuei –partzuergoek, berez, izaera bereko administrazio publikoak bateratzen dituzte–, toki entitateen araubide juridikoa aplikatuko zaie partzuergo horiei (funtzionamendua, prozedura, baliabideak, langileak, aurrekontua, etab.), eta araubide hori ez dago entitate horientzat pentsatua. Partzuergoek hori besterik ez dute izan behar: partzuergoak, sorburu dituzten arau espezifikoek pekoak, eta, kasuan-kasuan zer beharretarako diren, horietara egokitu beharrekoak.

c) Proiektuak mankomunitateen mapa bat egin dadin nahi du, baina hori ez dator bat mankomunitateen izaerarekin, zeinak udalen elkartze borondatezkoak baitira. Horren ordez, eskualdearen figurara jo behar da, aurreikusiz eskualdea izanen dela, orokorrean, udalez gaindiko zerbitzuen kudeaketa bere gain hartuko duen toki ente berria.

**5. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Bat atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 3. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“3. artikulua

1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute:

a) Kontzejuek.

b) Eskualdeek.

c) Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak, Aezkoa Ibarreko Komunitateak, Erronkari Ibarreko Mankomunitateak, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitateak, Aralarko Elkarteak eta foru lege honek indarra hartzen duenean herri ondasunen jabe edo administratzaile diren gainerako korporazio tradizionalak.

d) Mankomunitateak.

e) Toki partzuergoek.

2. c) letran jaso gabeko batasun tradizionalak gehiengoz onetsi beharko dute toki entitate gisa jarraituko dutela, eta Toki Administrazioari Departamentuari ofizialki jakinarazi beharko diote.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak foru lege honi jarraikiz gaurkotuko ditu horretarako sortutako toki entitateen erregistroko inskripzioak, bertan adieraziz erregelamenduz ezartzen diren datuak”.

Zioak: Aralarko Elkarteak toki entitate gisa desagertzea kaltegarria da gauzatzen dituen eskumenak gauzatzeari dagokionez, eta ez du inolako onura ekonomiko, eskumeneko edo administratiborik. Era berean, iruditzen zaigu toki entitate baten desagertzea, betiere, entitateak berak erabaki behar duela, eta erabaki hori ez dela beste inork inposatua izan behar.

**6. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Bat atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Bat. 3. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“3. artikulua.

1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute: a) Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak, Aezkoa Ibarreko Komunitateak, Erronkari Ibarreko Mankomunitateak, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitateak, Aralarko Elkarteak, Ameskoako Limitaciones mendiko Batzarrak, Bidasoa eta Berroaran Mendietako Administrazio Batzarrak, Kokoriko Mendietako Batzarrak, Kintoko Mendien Mankomunitateak, Oiarmendi Mankomunitateak eta Erregerena Mankomunitateak.

b) Foru lege bidez sortutako udal batasunek.

c) Zerbitzu administratiboetarako batasunek.

d) Mankomunitateak.

e) Toki partzuergoek.

2. b) letran jaso ez diren tradiziozko batasunek zuzenbide publikoko entitatearen izaerari eutsiko diote beren usadiozko eginkizunak betetzeko, baina ez dira toki entitateak izanen.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak foru lege honi jarraikiz gaurkotuko ditu horretarako sortutako toki entitateen erregistroko inskripzioak, bertan adieraziz erregelamenduz ezartzen diren datuak”.

Zioak: Zenbait erakunde tradizionalak zeregin garrantzitsua betetzen dute lurraldearen kudeaketan, zeina, bestela, ez lukeen beste erakunde batek eginen. Ezin da lege hau erabili erakunde horiek ezabatzeke.

**7. ZUZENKETA****FORU PARLAMENTARI  
MANU AYERDI OLAIZOLA  
ETA PATXI LEUZA GARCÍA  
JAUNEK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Bat atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 3. artikulua aldatzen baita. Hona 1. idatz-zatiaren b) letra:

«3. artikulua.

“1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute:

b) Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak, Aezkoa Ibarreko Komunitateak, Aralarko Elkarteak, Erronkari Ibarreko Mankomunitateak eta Zaraitzu Ibarreko Unibertsitateak”.

Zioak: Aralarko Elkarteak sartzeari planteatzen dugu. Zenbait udal eta kontzejuz osatua dago, eta helburu du Aralar mendiarekin zerikusia duten erabilerak eta aprobetxamenduak kudeatzea. Nahi

duguna da toki entitate tradizionalaren izaerarekin jarrai dezala, uste baitugu ez dagoela desagertzen horretarako arrazoirik, eta, aldiz, neurri hori bai izan liteke kaltegarria elkarrearen eskumeneko gaien kudeaketarako.

## 8. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen baita, beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Bat bis atala.

«Bat bis atala. 7. artikulua aldatzen da. Hemen-dik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“7. artikulua.

Udala nortasun juridiko eta gaitasun osoaren jabe da, eta, hala, autonomiaz gauzatu ditzake bere kargura dituen eginkizun publikoak, kudeatzen ahal ditu zerbitzu publikoak, eta ordezkari ditzake kasuan kasuko kolektibitatearen interesak. Eginkizun horiek benetan gauzatu ahal izateko, udalei nahikotasun finantzarioa emanen zaie, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura”».

Zioak: Toki entitateek ez badute finantza-autonomiarik, ez dago udal autonomiarik.

## 9. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen baita, beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Bat ter atala.

«Bat ter. 13.2. artikuluari e) letra berria gehitzen zaio. Hona testua:

“2. Aurreko idatz-zatian aipatutako prozesu guztiak arautu behar dituzten xedeak honakoak izanen dira:

a) Udalaren eskumeneko zerbitzuen prestazioa hobetzea.

b) Ukitutako toki entitateen kudeatze-ahalmena handitzea.

c) Udal dermioak errealitate fisiko, demografiko, hirigintzako eta kulturei egokitzea.

d) Herritarrek tokiko gaitan parte har dezaten bultzatzea eta zerbitzuen emate efektiboa ziurtatzea.

e) Administrazioaren eta herritarren arteko gardentasuna indartzea eta erraztea”

Zioak: Prozesu administratibo orok gidari izan behar ditu gardentasunaren printzipio erabatekoenak.

## 10. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Bi atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Bi. 14.2 artikulua kentzen da”

Zioak: Ez dugu gutxietsi behar gure udalen autogestiorako gaitasuna, kontuan hartuta zer zailtasun pasa behar izan dituzten azken urteotan.

## 11. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Bi atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«”Bi. 14. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“14. artikulua.

1. Udal berriak sortuko dira, soilik, lurraldez bereizirik dauden populazio-guneak oinarri hartuta eta, betiere, sortutako udal horiek behar adinako baliabide baldin badute udal eskumenak betetzeko, ordura arte emandako zerbitzuen kalitatea okertu gabe.

2. Udalerrri batean behin eta berriro gertatzen bada hautagairik ez aurkeztea udala aukeratzeko hauteskundeetarako, Nafarroako Gobernuak 17. artikuluan aurreikusitako ekimena jarriko du abian, udal hori bat egin dadin mugakide duen batekin edo mugakide duen udal horretan sar dadin. Ukitutako udaletan, 96. artikuluan aurreikusitako herri-kontsulta egingen da, baldin eta, 96. bis artikuluan ezarritakoarekin bat, herritarrek horretarako ekimen bat jartzen badute abian”».

Zioak: Ez da inposatu behar udal bat beste batean sar dadin; egin behar den bakarra da ekimena aurreikusi, halako moduz non ukitutako udaletan eta herritarrek aukera izan dezaten horri buruzko iritzia emateko.

**12. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, zeina Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa baita, Bi bis atala gehitzeko zuzenketa.

«Bi bis. 21. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“21. artikulua.

1. Ezin da udal baten izenik aldatu, hartu nahi den berria lehendik dagoen beste baten berdina bada edo zerbitzu publikoen antolamenduan nahasketak sor baditzake.

2. Udal guzti-guztien izenetan euskara nola erabili Euskaltzaindiak ezarritakoari lotuko zaio, eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak eginitako izendegiari, udalen euskarazko izenei arau-maila ematen baitie izendegi horrek”».

Zioak: Euskarazko izenak aski zehaztuak daude izendegi horretan.

**13. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, zeina Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa baita, Bi ter atala gehitzeko zuzenketa.

“Bi ter. 26. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak kentzen dira.”

Zioak: Gure iritziz, udalak beraiek izan behar dute beren sinboloei buruz erabakitzen dutenak.

**14. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari Bi quater atala gehitzeko zuzenketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa. «Bi quater. 27. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“27. artikulua.

Liburu, komunikazio eta gainerako agiri ofizialetan, toki korporazioek armarrria edo ikur bereiz-

garri bat erabiltzen ahalko dute, historia, tradizio gertaeretan edo geografian oinarritua, baita korporazioak berak dituen ezaugarrietan edo haren ize-nean ere, edota korporazioak osoko bilkuran gehiengoz onetsitako bestelako zerbaitetan.

Zioak: Gure iritziz, udalak beraiek izan behar dute beren sinboloei buruz erabakitzen dutenak.

**15. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Bi bis, zeinaren bitartez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 29. bis artikulua sortzen baita. Hona artikulua berriaren testua:

“29. bis artikulua.

Nafarroako Gobernuak, legez berak gauzatu beharrekoak diren eskumenak toki entitateei eskuordetzen dizkienean, eskumen horien finantzaketa osoa bermatu beharko du.”

Zioak: Eskumenen eskuordetzearekin batera, Nafarroako Gobernuak eskuordetze horren finantzaketa ziurtatzen du.

**16. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Hiru atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Hiru. 30. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“30. artikulua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak eskualdeei eta udalei eskuordetu ahalko diete, Estatuko oinarritzko legerian ezarritakoarekin bat, beren interesak ukitzen dituzten gaietako eskumenez baliatzea, betiere baldintza hauekin: horren bidez kudeaketa publikoaren eraginkortasun eta efizientzia nahiz zerbitzuak emateko modua hobetzea, administrazio bikoizteak kentzeko lagungarria izatea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzko legeriarekin bat etortzea, eta herritarrek afera publikoetan parte-hartze handiagoa izan dezaten laguntzea.

Eskuordetzeko erabakiak haren eragin-eremua, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta eskuordetzea egiten duen Administrazioak beretako gordetzen duen kontrola,

zerbitzuak nola betetzen diren kontrolatu eta zuzentzeko ahalmenak, eta, halakorik dagoenean, eskualdatzen dituen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak. Kasu guztietan, eskuordetzeak atxikirik izanen du eskuordetutako zerbitzua edo zerbitzuak emateko behar adinako finantzaketa ere; horretarako, eskuordetzea egiten duen administrazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako dituen aurrekontuetan zuzkidura egon beharko da, behar bestekoa eta egokia.

2. Udalek, 3.1.b) artikuluan aipatutako batasun tradizionalak, udal batasunek eta eskualdeek beraien artean eskuordetzen ahalko dute eskuermen propioen erabilera edo eman beharreko zerbitzuen kudeaketa. Eskuordetzeko erabakiak haren eragin-eremua, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta eskuordetzea egiten duen Administrazioak beretako gordetzen duen kontrola, eta, halakorik dagoenean, eskualdatzen dituen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak; kasu guztietan, eskuordetzeak atxikirik izanen du behar adinako finantzaketaren eskuordetzea ere, aurreko idatzazatian ezarri bezala.

3. Eskuordetzea eraginkorra izateko, eskuordetzearen hartzaile den entitatearen onarpena beharko da betiere.

4. Helburu berekin, aurreko idatz-zatietan aipatutako entitateek zerbitzuen kudeatze-gomendioak jasotzen edo egiten ahalko dituzte».

Zioak: Egokitzea eskuordetzearen mekanismoa beste zuzenketa batzuetan proposatutako toki entitateen tipologiara.

## 17. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hiru atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 30. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

«30. artikulua:

1. Udalak kontzejuei eskuordetzen ahalko die, kontzejuek onartzen badute, udalaren eskumenekoak diren obrak egitea edo zerbitzuak ematea, kontzeju horienak diren interesei eragiten badiete, halako moduz non kudeaketa publikoaren eragin-kortasuna hobetu eginen den eta herritarren parte-hartzea ere handiagoa izatea lortuko den. Inoiz ere ez dira kontzejuei eskuordetzekoak izanen udalen hirigintza-eskumenak.

2. Era berean, kontzejuek ere, bere eskumenekoak dituzten gaietan, eskuordetzen ahal dizkiete eskumenak udalei.

3. Udalek beren eskumenak edo eman beharreko zerbitzuen kudeaketa eskuordetu ahal izanen dizkiete parte diren eskualdeei, batasun tradizionalari edota mankomunitateei. Eskuordetzeko erabakiak haren eragin-eremua, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta eskuordetzea egiten duen Administrazioak beretako gordetzen duen kontrola, eta, halakorik dagoenean, eskualdatzen dituen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak; kasu guztietan, eskuordetzeak atxikirik izanen du behar adinako finantzaketaren eskuordetzea ere.

4. Mankomunitate batekoak diren udalek, gainera, eskualde berekoak izan behar dute. Udal batek ezin izanen ditu bere zerbitzuak mankomunitatu bera sartuta dagoen eskualdekoak ez diren beste udal batzuekin.

5. Foru Komunitateko Administrazioak udalei edo eskualdeei eskuordetu ahalko diete beren interesei dagozkien gaien arloko eskumenen erabilera, baldin eta horrela hobetu egiten bada kudeaketa publikoaren eragin-kortasuna eta efizientzia, administrazio-bikoiztasunak kentzeko lagungarria bada, aurrekontu-egonkortasunari eusten bazaio eta hobetu egiten bada herritarrek afera publikoetan duten parte-hartzea. Eskuordetze-akordioak zehaztu egin behar ditu eskuordetzearen irismena, edukia, baldintzak eta iraupena, bai eta eskuordetzea egin duen administrazio publikoak beretzat erreserbatzen duen kontrola. Eskuordetzearekin batera, eskuordetutako zerbitzua emateko behar adinako finantzaketa ere eman beharko da».

Zioak: Eskumenen eskuordetzearekin batera, Nafarroako Gobernuak eskuordetze horren finantzaketa ziurtatzen du.

## 18. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Lau atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Lau. 31. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

«31. artikulua.

1. Nafarroako udalek, zeinek bere aldetik edo elkartuta, legeria orokorrean gutxienekotzat ezarzen diren zerbitzuak eman beharko dituzte. Auzo-



tarrek eskubidea izanen dute zerbitzu horiek ezarri eta eman daitezela eskatzeko.

2. Beren lurralde esparruaren barnean kontzejuak dituzten udalerrietan, aurreko idatz-zatian aipatutako zerbitzuak kasuan kasuko udalek eman beharko ditu, zerbitzu horiek ez badira lege hone-tan holako kontzejuen esku utzitako gaien inguru-koak.

3. Udalek Nafarroako Gobernuari eska diezai-ohete gutxieneko zerbitzuak emateko betebeharretik salbuets ditzala, legedi orokorrean aurreikusita-koarekin bat. Nafarroako Gobernuak, zuzenean edota kasuan kasuko eskualdeari eskuordetuz, laguntza eman beharko die artikulu honetako 1. idatz-zatiak aipagai dituen gutxieneko zerbitzuak emateko betebeharretik salbuetsitako udalei, eta haiekiko lankidetzak juridikoan, ekonomikoan eta teknikoan aritu beharko du, zerbitzu horien osota-suna ziurtatzeko».

Zioak: Eutsi egin behar zaio, Estatuko legedi oinarritzkoarekin bat, gutxieneko zerbitzuak emateko betebeharraren salbuespenari, baina eskualde-en sorrerari egokituta, eskualdeak izan behar baitute udalez gaindikoko eskumenak gauzatzeko tresna ohikoa.

## 19. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Lau atalean, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen baita, beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona 5. idatz-zatiaren testua:

“5. Foru lege batek adierazi baldin badu eskumen bat eskuordetzeko modukoa dela, Nafarroako Gobernuak, egoki baderitza, eskuordetzen ahalko du; betiere, ukitutako toki entitateak adostasuna agertzen badu eta Osoko Bilkuraren gehiengo osoz onartzen badu proposatutako eskumen hori bere gain hartzea”.

Zioak: Eskumenak eskuordetzeko aukera irekita uztea.

## 20. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Lau atalean, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko

6/1990 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen baita, 31. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“31. bis artikulua.

1. Behin foru lege hau onetsita, lantalde bat osatuko da, honakoak izanen dituena kide: Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuko bi ordezkari; Parlamentuan diren parlamentu-talde bakoitzeko ordezkari bana; Nafarroako toki entitateetako ordezkariak, hain zuzen ere bat merindade bakoitzeko, Iruñerria izan ezik, zeinak bi ordezkari izanen baititu; eta Nafarroako udalen elkarte edo federazioen ordezkari bat. Talde horrek izena izanen du “Toki Administrazioaren eskumenak aztertzeke talde interinstituzionala”; eta helburu izanen du toki entitateek zer eskumen propio eta inpropio dituzten aztertzea, bai eta proposamen berri bat prestatzea ere zehaztuko duena zeintzuk diren toki entitateen “eskumen propioak” eta zeintzuk Nafarroako Gobernuak toki entitateei “eskuordetzeko moduko eskumenak”.

Lantalde horrek, era berean, kontzejuentzako eskumen-banaketarako proposamen bat ere egingen du.

2. Indarrean den legeditik ondoriozta daitezkeen, udalei eskuordetzen ahal zaizkien eskumenak edota udalei eskumen propio gisa esleitzen direnak honakoak dira: errola, katastroa, ur hornidura, saneamendua, argiteria publikoa, bideen garbiketa, hondakinen bilketa eta tratamendua, hilerrria eta hileta-zerbitzuak, udal artxiboa, museoak, ondare materiala eta historiko-artistikoa, gizarte-zerbitzuak eta bergizarteratzea, oinarritzko osasun laguntza, bake epaitegiak, hirigintza eta etxebizitza-sustapena, landa-kamino eta -bideen kontserbazioa, bide publikoak, ingurumena, haur hezkuntza (lehenengo zikloa), musikaren eta hizkuntzen irakaskuntza, irisgarritasuna, segurtasuna, suteak, babes zibila, pertsonen hiri garraioa, trafikoa, kultura, kirola, hizkuntza-politika, genero-berdintasuna, hirugarren adina, immigrazio-politikak, aisia, liburutegia, turismoa, merkataritza eta kontsumitzaileen defentsa, garapen ekonomikoa, gizarte-garapena, gazteria, garapenerako lankidetzak, politika energetikoa, nekazaritza-jarduerak, udal-festak, taxiak, azokak, hiltegiak eta animaliak.

3. “Toki Administrazioaren eskumenak aztertzeke talde interinstituzionalak”; urtebeteko epean, toki entitateei esleitu beharreko eskumenak jasoko dituen proposamen bat aurkeztuko du Parlamentuan. Proposamen hori, gero, Parlamentuan tramitatu eta onetsi ondoren, lege honetara ekarriko da”.

Zioak: Foru Administrazioaren eta Toki Administrazioaren arteko eskumen-banaketa zehatza eta argia planteatzea.

## 21. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Bost atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Bost. 32. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“32. artikulua.

1. Kontzeju irekiaren araubideko jarduna Estatu oinarriko legedian aurreikusitako kasuetan aplikatuko da.

2. Bertan horretarako usadio, ohitura edo tradizio izan ez bada, ondoko arau hauetara moldatuko dute beren funtzionamendua:

a) Alkateari dagokio udala ordezkatzea, eta oro har, udaletan alkateak dituen eskudantziak ere.

b) Alkateak batzorde bat izendatu ahalko du, gutxienez bik eta gehienez lau kidek osatutakoa, bere eginkizunetan laguntzeko eta kanpoan edo gaixorik dagoenean, izendapen ordenaren arabera, bere ordezkari izateko.

Batzorde hori, halaber, alkateak edo auzotarren batzarrak haren gain utzitako eskudantzien jabe ere izanen da.

c) Herritarren batzarrari dagozkio udaletan osoko bilkurak bere gain dituen eskudantziak.

d) Auzotarren batzarrean osagarri gisa aplikatuko da toki araubideko legeriak udalaren osoko bilkurrentzat ezarrita duen jarduteko araubidea”».

Zioak: Testua soilteza.

## 22. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko bigarren artikuluari beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Sei bis atala, zeinak honako testu hau izanen du:

«Seigarrena bis. 35. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“35. artikulua.

1. Lurralde Mugapenerako Batzordea sortzen da, udalen aldaketei buruzko edo udal batasunen

eraketari buruzko jarduketan gainean txostenak, azterlanak, aholkuak eta proposamenak egin eta emanen dituen organo gisa.

2. Lurralde Mugapenerako Batzordea, organiko, Toki Administrazioako Departamentuari atxikiko zaio.

3. Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Derrigorrezko txostena ematea udalak eratu eta aldatzeko espediente guztietan.

b) Derrigorrezko txostena ematea eskualdeak eta administrazio barrutiak ezartzeko, zeinak 33. eta 46. artikuluetan aurreikusita baitaude.

c) Bere ekimenez, edota Nafarroako Gobernuak edo Toki Administrazioako Departamentuak eskaturik, azterlan, txosten edo irizpenak egitea udal dermioak eta eskualdeak nahiz udal batasunak berrikusi edo aldatu ahal izateko, eta oro har, udalen edo kontzejuen mapan edozein aldaketa egiteko.

d) Foru lege bidez ematen zaion bestelako edozein”».

Zioak: Artikulu hau egokitzea, administrazio barrutiak desagertu egiten baitira (proiektuan ahaztuta dago barrutien erreferentzia kentzea batzordearen eginkizunetatik), eta eskualdeak sortze proposatzen baitugu beste zuzenketa batzuetan.

## 23. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen baita, beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Sei bis atala.

“Sei bis. 35. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letra kentzen da”.

Zioak: Foru lege proiektu honek kendu egiten duenez 33. artikulua, uste dugu 35.3.b) artikulua ere kendu egin behar dela, lotura zuzena duelako.

## 24. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Zazpi atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Zazpi. 38. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“38. artikulua.

1. Kontzejuen gobernu eta administrazioa kontzejuburu batek eta batzar edo kontzeju ireki batek eramanen ditu.

2. Kontzejuburua eta batzarkideak gehiengo bidez hautatuko dituzte kontzejuko egoiliar izan eta kontzejuari dagokion udalaren hauteskunderetako eroldan sarturik daudenek, kontzeju dagoen udaleko hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dutela. Hautatzeko eguna udal hauteskundeena bera izanen da.

Hautagai izateko eskubidea izanen dute botoa emateko eskubidea aitortua dutenek, aurreko leerroaldean xedatutakoarekin bat.

3. Kontzeju ireki gisa arituko dira 100 biztanle baino gutxiago dituzten kontzejuak, eta lege honetako 32. artikuluan 100 biztanle baino gutxiagoko udaletarako ezarritako funtzionatzeko modu bera eta baliokidea izanen dute.

4. Batzarburuak zuzenduko du batzarra, zeina buruak berak eta lau batzarkidek osatuko baitute. Batzarburuak izendatuko du bera kanpoan edo gaixorik dagoenean ordezkatzeko duen batzarkidea”».

Zioak: Araubidea bateratu egiten denez kontzeju irekietarako eta udal irekietarako, ez du zentzurik biztanle kopurua diferentea izatea kasu batzuetan eta besteetan, eta, beraz, proposatzen dena da 100 biztanleko kopurua aplikatzea.

## 25. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko Zortzi atala (39. artikulua) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontzejuek beren esku izan dituzten eskumen historikoak ez dute toki-esparruan inongo problemarik eragin; oso antzinatek dituzte kontzejuek eskumen horiek, eta, beraz, uste dugu ez dela beharrezkoa 39. artikulua aldatzea.

## 26. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamar atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Hamar. 44.1. artikulua d) eta f) letrak kentzen dira.”

Zioak: Ez dugu gutxietsi behar gure udalen autogestiorako gaitasuna, kontuan hartuta zer zailtasun pasa behar izan dituzten azken urteotan.

## 27. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Hamar atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Hamar. 44. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“44. artikulua.

1. Kontzejuak kasu hauetan azkenduko dira:

a) Auzotar egoiliarren gehiengoaren idatzizko eskaeraren bidez, udala entzun ondoren.

b) Biztanleen kopurua hamaseitik beherakoa izateagatik, edo, nahiz eta horretara iritsi, gutxienez hiru famili unitate ez izateagatik.

c) Kontzejuaren gobernu organoak eskatuta, kideen legezko kopuruaren bi hereneko gehiengoak hartutako erabakiaren bidez.

d) Hauteskundeak arautzen dituen foru legeria betez onartzen diren hauteskunde prozesuetan behin eta berriz hautagai-zerrendarik ez aurkeztea, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera.

e) Behar edo komenigarritasun ekonomiko edo administratiboko arrazoi agerikoak daudenean edo betebeharrak administratiboak behin eta berriz betetzen ez direnean.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio, Lurralde Mugaketako Batzordeak txostena eman ondoren, kontzejuen azkentzea dekretatzea. Azkentzeari buruzko foru dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Estatuko Administrazioari igorriko zaio, Toki Entitateen Erregistroan inskribatzeko”».

Zioak: Kontzeju bat hazi izana udalaren gainekoak baino biztanle gehiago izan arte ez da, berez, kontzeju desagerrarazteko arrazoi. Hala bada, a), c) edo e) letretan xedatutako aplikazio daiten.

## 28. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Hamabi atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Hamabi. 46. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“46. artikulua.

1. Nafarroako Gobernuak, foru dekretuz, zenbait udal batuko dituzten entitateak sortzen ahalko ditu, zerbitzu administratiboak batera eman ditzaten eta batera ordain ditzaten langile komunak.

2. Batasun bat sortzeko prozeduran, nahitaez jaso beharko da ukitutako udalen entzunaldia.

3. Batasunak sortzeko foru dekretuan, batasun horren estatutuak ere jaso beharko dira, eta zehaztu egin beharko dira izena, buru eginen duen udala, zer osaera eta funtzionamendu izanen duten bere gobernu-organismoek, zeinak bateratutako udalen ordezkari izanen baitira, zer eskumen eta baliabide ekonomiko esleituko zaizkien, eta zer ahalmen izanen zaizkien aplikatzekoak.

Aurreko lerroekadak aipatzen dituen udal-elkarreetan burutza izanen duen udala aukeratzekoan, funtzionaltasun irizpideei begiratuko zaie, hala nola zeinek duen biztanle kopururik handiena edo zein den elkartutako udalen arteko erdigunetik hurbilen dagoena.

Entitatea sortzeko foru dekretuan aurreikusirik ez dagoen guztian, batasuneko batzarraren edo organo gorenaren funtzionamendua udalen osoko bilkuretarako ezarritakoari lotuko zaio, eta organo exekutiboa, berriz, tokiko gobernu batzorderako ezarritakoari.

4. Foru dekretuan aurreikusita egonen da udal batasuna funtzionamenduan jartzeko behar den aldi baterako araubidea. Nolanahi dela ere, batasuna osatu nahi duten udalek jadanik baldin badira antzeko xedeetarako eratutako entitateetako kide, entitate horiek desegin eginen dira eta, kasua bada, bertako langileak eta gainerako baliabideak batasun berrian sartuko dira.”

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko; gainera, toki entitateen tipologia soiltzeko eta arrazionalizatzeko, kategoria berean bildu behar dira udal batasunak eta zerbitzu administratiboen batasunak. Gaur egun, eta proiektuan ere berdin, beren arteko aldeak eta mankomunitateekin dituzten aldeak gutxi dira, eta definizioak nahasgarriak. Biztanle gutxiko udaletarako foru dekretuz ezartzen den zerbitzu administratiboen bateratze behartuari kategoria bakar gisa eutsi behar zaio; beste zerbitzu batzuen bateratzea, era guztietako udaletarakoa, eskualdeen bidez egin behar da; mankomunitateak, berriz, beren borondatez elkartzen diren udalek osatu behar dituzte.

## 29. ZUZENKETA

FORMULADA POR

ILMO. SR. D. MANU AYERDI OLAIZOLA

E ILMO. SR. D. PATXI LEUZA GARCÍA

Bigarren artikuluko Hamabi atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 46. artikulua 2. idatz-zatia aldatzen baita. Hona testu berria:

“2. Foru lege honetan taxutu diren interes orokorreko mankomunitateak eratzeko epea iraganik, Nafarroako Gobernuak, horietako bakoitza osatuko duten udaletan legezko gehiengoaren akordioa lortu ondoren, Nafarroako Parlamentura igorriko ditu legezko udal batasunak sortzeko behar diren arau proiektuak, helburu horrekin onetsi zen plan zuzentzailean identifikatutako interes orokorreko mankomunitateen kopurua adina proiektu, alegia. Entitate berrien osaketa instituzionala, eskumenak, eta jarduteko eta antolatze sistemak foru lege honetan eta aipatutako plan zuzentzailean ezarritakoaren arabera izanen dira.”

Zioak: Planteatzen dugu prozesuak izan dezala mankomunitate bakoitzeko udal ordezkariaren legezko gehiengoaren oniritzia, uste baitugu Administrazioaren beste maila bat ari garela arautzen, kasu honetan Toki Administrazioa, eta, horrenbestez, udal autonomia errespetatu beharra dago.

## 30. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamabi atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«Hamabi. 46. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“46. artikulua.

1. Nafarroako Foru Komunitateak foru lege bidez sortu ahal izanen ditu udal bat baino gehiago biltzen dituzten entitateak, sortzean zehaztuko diren udal eskumeneko zerbitzuak batera emateko xedeaz.

2. Foru lege honetan taxutu diren eskualdeak eratzeko epea iraganik, Nafarroako Gobernuak, ukitutako udalen ekimena izan beharrik gabe, Nafarroako Parlamentura igorriko ditu legezko udal batasunak sortzeko behar diren arau proiektuak, helburu horrekin onetsi zen plan zuzentzailean identifikatutako interes orokorreko mankomunitateen kopurua adina proiektu, alegia. Entitate berrien

osaketa instituzionala, eskumenak, eta jarduteko eta antolatzeke sistema foru lege honetan eta aipatutako plan zuzentzailean ezarritakoaren araberakoak izanen dira».

Zioak: Lege proiektuak interes orokorreko mankomunitate izendatzen dituen udalez gaindiko erakundeak

ez datoz bat eskualde naturalen errealitate historikoarekin; eskualdeak, gainera, oso onartuak daude jendearen egunerokoan.

### 31. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko bigarren artikuluko Hamahiru atala kentzeko zuzenketa (46. bis artikulua).

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko; gainera, toki entitateen tipologia soiltzeko eta arrazionalizatzeko, kategoria berean bildu behar dira udal batasunak eta zerbitzu administratiboen batasunak. Bestalde, proiektuak 6/1990 Foru Legearen 46. bis artikulua berri gisa sartzen duen arauketaren edukirik gehiena, teknika normatibo egokia erabilia, xedapen gehigarri batean bildu beharko litzateke; eduki hori horrelako xedapen batean sartzea beste zuzenketa batean proposatu dugu.

### 32. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamahiru atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

“Hamahiru. 46.b) artikulua kentzen da”

Zioak: Lege proiektu honetan planteatzen den berrantolaketak, de facto, ehunka udal eta kontzejuren bideraezintasuna dakar. Uste dugu konfigurazio berri batekin zenbait akats arindu egingen liratekeela, baina planteatutakoa ez da errealista

### 33. ZUZENKETA

#### FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamahiru atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 46.

artikuluaren 1. idatz-zatia aldatzen baita. Hona testu berria:

“46. bis artikulua.

1. Zerbitzu administratiboetarako batasunak sortzea.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean gehienez ere, plan zuzendari bat prestatuko du, eta bertan bilduko ditu berrantolaketarako proposamenak, bai eta plan horretan berean identifikatutako zerbitzu administratiboetarako batasunek izanen dituzten ondorioak ere, antolaketakoak nahiz ekonomikoak; xedea izanen da entitate horien eraketa eta funtzionamendua planifikatu eta programatzea. Plana onetsi egin beharko dute ukitutako udalek, eta, horretarako, bere esparruko udal ordezkarien gutxienez ere ehuneko berrogeita hamaikaren aldeko botoa beharko da. Plana, behin onetsita, jendaurrean jarriko da, udalei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari emanen zaie kontsultarako, Lurralde Mugaketako Foru Batzordeari eta Toki Araubideko Foru Batzordeari ere emanen zaie, hiru hilabeteko epean txostena egiteko, eta, ondoren, Nafarroako Gobernuak erabaki baten bidez berretsi egingen du.”

Zioak: Planteatzen dugu prozesuak izan dezala batasun berri bakoitzeko udal ordezkariaren legezko gehiengoaren onespina, uste baitugu Administrazioaren beste maila bat ari garela arautzen, kasu honetan Toki Administrazioa, eta, horrenbestez, udal autonomia errespetatu beharra dago.

Era berean, uste dugu epe bat ireki beharra dagoela plana jendaurrean jartzeko, herritarrek, horrela, zuzeneko parte-hartzea izan dezaten prozesuan, esparru instituzional hutsean egiten diren kontsultez haratago.

### 34. ZUZENKETA

#### FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamahiru atala aldatzeko zuzenketa; hain zuzen ere, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 46. bis artikulua 4. idatz-zatiaren 1. lerokada aldatzen da; hona testu berria:

“4. Entitatearen eraketa-prozedura.

Zerbitzu administratiboetarako batasun bat sortzeko foru dekretua argitaratu eta hilabeteko

gehieneko epean, batasuneko kide diren udalek beraien ordezkariak izendatuko dituzte; bi hilabete-ko gehiengo epean, berriz, entitatea eratzeko batzarrerako deia egingen da, eta biztanle kopuru handiena duen udalerrian une horretan idazkari lanak betetzen dituenak gidatuko du bilkura. Batzarra eratzeko, beharrezkoa izanen da udal ordezkarien gutxienez ere ehuneko berrogeita hamaikaren presentzia.”

Zioak: Uste dugu toki ordezkarien borondatea ezin dela ordeztu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendatutakoen borondatearekin, eta, beraz, beharrezkoa da batzarre eratzailan egon dadila sortzekoa den entitateko udaletako ordezkarien gehiengo gutxienez ere.

### 35. ZUZENKETA

#### ARALAR-NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamairu atalean, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 46. bis artikulua gehitzen baita, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona testua:

“46. bis artikulua.

1. Nafarroako Foru Komunitateak zenbait udal biltzen dituzten entitateak sortzen ahalko ditu, eskualde izena izanen dutenak, eta dituzten ezauzgarriengatik eskatzen dutena zerbitzu komunak ematea.

2. Eskualdeen sorrera lege hau onetsi ondoren hasiko den prozesu baten bidez egingen da. Prozesuan Nafarroako udal guztiek hartuko dute parte, bakoitzak bere eskualde berean sartzeko modukoak diren udalekin batera.

3. Honakoak dira definitzen ahalko diren eskualdeak:

- Larraun-Leitzarain (Goizueta, Areso, Leitza, Arano, Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Basaburua, Imotz);

- Baztan-Malerreka (Ezkurra, Eratsun, Saldias, Labaien, Zubieta, Ituren, Urrotz, Oitz, Donamaria, Elgorriaga, Doneztebe, Bertizarana, Sunbilla, Arantza, Igantzi, Etxalar, Lesaka, Bera, Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Ultzama, Atetz, Odieta, Lantz, Anue);

- Pirinioak (Erro, Auritz, Orreaga, Luzaide, Orbaizeta, Orbara, Aria, Garralda, Hiriberri, Aribe, Orotz-Betelu, Garaioa, Abaurrepea, Abaurregaina, Otsagabia, Itzaltzu, Ezkaroze, Jaurrieta, Orontze, Espartza Zaraitzu, Sartze, Gorza, Galoze, Nabas-

koze, Uztarroze, Izaba, Urzainki, Bidankoze, Erronkari, Garde, Burgi, Gazteluberri);

- Sakana (Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Ergoiena, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte Arakil, Irañeta, Arakil, Irurtzun);

- Agoitz-Zangoza (Artzibar, Urraulgoiti, Lizoain-Arriagoiti, Longida, Agoitz, Urrotz, Itzagaondoa, Untziti, Urraulbeiti, Erromantzatua, Ibargoiti, Irunberri, Esa, Ledea, Xabier, Zangoza, Oibar, Leatxe, Zare, Ezprogi, Leotz, Lerga, Eslaba, Galipentzu, Kaseda);

- Iruñerria (Esteribar, Olaibar, Ezkabarte, Juslapeña, Iza, Olo, Goñi, Olza, Orkoien, Berriplano, Berriozar, Ansoain, Villava, Huarte, Burlada, Egüés, Aranguren, Monreal, Noain, Beriain, Unzue, Tiebas, Biurrun, Galar, Cizur Menor, Zizur Mayor, Barañain, Pamplona);

- Tafalla (Legarda, Uterga, Muruzabal, Adios, Ukar, Tirapu, Eneritz, Añorbe, Obanos, Artaxoa, Puiu, Barasoain, Garinoain, Orisoain, Artaxoa, Tafalla, Erriberri, San Martin Unx, Beire, Uxue, Pitillas, Santakara, Murillo el Fruto, Zarrakaztelu, Mélida, Murillo el Cuende, Caparros);

- Izarbeibar-Etxauri (Etxauri, Ziritza, Bidaurreta, Zabaltza, Etxarri, Belaskoain, Girgillao, Gares, Artazu, Mañeru, Zirauki, Mendigorria, Larraga, Berbitzana, Miranda Arga);

- Lizarra (Larraona, Eulate, Aranaratz, Amekoabarrena, Lokiz, Allin, Abartzuza, Deierrri, Lezaun, Gesalatz, Villatuerta, Lizarra, Oteitza, Allo, Lerin, Aiegui, Aberin, Morentin, Deikaztelu, Arellano, Arroitz, Iguzkitza, Villamayor de Monjardín, Lukin, Barbarin, Los Arcos, Elizagorria, Santso, Torres del Río, El Busto, Piedramillera, Armañanzas, Bargota, Viana, Aras, Metauten, Murieta, Antzin, Abaigar, Oko, Legaria, Olexoa, Etaiu, Sorlada, Mues, Lana, Zúñiga, Mendaza, Nazar, Mirafuentes, Esprontzeta, Torralba del Río, Aguilar Kodes, Azuelo, Genevilla, Cabredo, Marañón y Lapoblación);

- Goi Erribera (Mendabia, Sesma, Lodosa, Sarataguda, Cárcar, Andosilla, San Adrián, Faltzes, Azkoien, Martzilla, Azagra, Funes, Alesbes, Milagro eta Cadreita);

- Erribera (Valtierra, Arguedas, Corella, Castejón, Tuter, Fitero, Cintruénigo, Cascante, Murchante, Monteagudo, Tulebras, Barillas, Cabanillas, Fontellas, Ablitas, Ribaforada, Fustiñana, Buñuel y Cortes).

4. Edozein modutan, udal bakoitzak erabaki beharko du eskualde horietakoren batean sartu

nahi duen eta zeinetan, betiere eskualde horrekin muga geografikorik baldin badu.

5. Udal bat eskualde batean sartzeko behin betiko erabakiak borondatezkoa izan behar du, eta honako prozedura hauetakoren bat erabiliko da:

- Udalaren Osoko Bilkuraren edo kontzeju irekiaren erabakia, gehiengo osoz hartua.

- Tokian tokiko erreferendum baten bidez, eskualdean sartzeko aldeko botoek, betiere, emandako botoen % 51 egiten badute, eta erroldatutako biztanleen gutxienez ere % 50ek hartu badute parte.

6. Behin argi zehaztuta zein diren bai udalen bai Nafarroako Gobernuaren eskumenak, bi administrazioek eskualdeei esleitzen ahalko dizkiete egoki irizten dizkieten eskumenak.

7. Eskualdeen finantzaketa transferentziak abiapuntu hartuta eginen da, hala Nafarroako Gobernuarenak nola eskualdeko udalena, esleituta dituzten eskumenen arabera”

Zioak: Udalak eskualde naturalen arabera banatzea, eta toki entitateak beren borondatez bil daitezela eskualde horietara; gainerako instituzio publikoek errespetatu egin beharko dute entitate bakoitzak erabakiak hartzeko duen autonomia.

### 36. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

Hamalau. 53. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“53. artikulua. Nafarroako Gobernuak, zerbitzuen prestazioa ezin denean eman eskualdeen edo udal batasunen bidez, mankomunitateen sorrera babestuko du zerbitzuak modu arrazionalagoan eta efizienteagoan emateko”

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat, eta entitateen tipologia soiltzeko eta arrazionalizatzeko. Udalez gaindiko zerbitzuak emateko, ohiko modua eskualdeak eta udal batasunak sortzea izanen da, foru lege hau garatu eta aplikatetik sortzen den maparen arabera; mankomunitateak, berriz, borondatezko elkarteak direnez, baliabide osagarriak izanen dira, udalez gaindiko entitateen egiturak dauden beharrei erantzun egokia ematen ez dien kasuetarako,

Ez du logikarik mankomunitateak, definizioz udalerrien borondatezko elkarteak direnak, foru

lege baten aginduz sortzeak. Udalez gaindiko entitateak derrigorrezko izaerarekin sortzeak zuzenketan honetan eta beste batzuetan proposatzen den eskemari erantzun beharko dio: eskualdeak, foru lege sortuak, udalez gaindiko eskumenak hartzeko, oro har, eta batasunak, foru dekretuz sortuak, administrazio zerbitzuak emateko eta langile komunak mantentzeko biztanle gutxiko udalerrietan.

Beste alde batetik, proiektuan, dagoeneko, mankomunitateen mapa bat badago, arrazionaltasunik gabea, eta bideragarritasun ekonomikoari eta eskumenak hartzeari buruzko azterlanik egin gabe prestatu dena. Bidezko prozedura da prozesu bat irekitzea, horretarako azterlanak behar den zorrotzasunez eginda, eskualdeen eta batasunen mapa bat sortzera iritsiko dena”

### 37. ZUZENKETA

#### FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 53. artikulua 1. idatz-zatia aldatzen baita. Hona testu berria:

“1. Mankomunitateen berrantolaketa.

Nafarroako Gobernuak, lurraldetasun, eginkizunen aniztasun eta berdintasun irizpideetan oinarrituta, “Interes orokorreko mankomunitateak” era daitezen sustatu, bultzatu eta pizgarriak emanen ditu; mankomunitate bakoitza bere lurralde esparruko udalek osatuko dute, foru lege hau onesten denean udal eskumeneoak diren zerbitzuak, batera emateko helburuaz, mankomunitate edo hitzartuta dituztenek eta, ordura arte zerbitzuak banaka eman ondoren, eskumena mankomunitateari eskuordetzen diotenen ere.

Ondorio horietarako, Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko gehieneko epean plan zuzentzaile bat eta txosten ekonomiko bat prestatuko ditu, egun dauden mankomunitateetako udalak interes orokorreko mankomunitateetan sartzeko prozesua planifikatu eta programatzeko helburuaz. Hauek dira sei mankomunitate horiek, Nafarroako Lurralde Estrategian oinarritutakoak:

– Erribera: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 1. eremuko udalerriek osatua.

– Erdialdea: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 2. eta 5. eremuetako udalerriek osatua.

– Lizarrerria: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 3. eta 4. eremuetako udalerriek osatua.

– Zangoza: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 6. eremuko udalerriek osatua.

– Pirinioak: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 7. eremuko udalerriek osatua.

– Bidasoa: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 8. eremuko udalerriek osatua.

– Sakana: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 9. eremuko udalerriek osatua.

– Iruñerria: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 10. eremuko udalerriek osatua.

Duden sei mankomunitateek parte hartuko dute plan horren prestaketan, eta udal ordezkariak gehiengo onetsi beharko dute. Plana, behin onetsita, jendaurrean jarriko da, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari emanen zaio kontsultarako, eta Lurralde Mugaketako Foru Batzordeari eta Toki Araubideko Foru Batzordeari ere emanen zaie txostena egiteko; ondoren, Nafarroako Gobernuak erabakiz onetsiko du.

Nafarroako Gobernuak, aurreko idatz-zatian aurreikusitako plan zuzendaria onetsi ondoren, hura garatu eta betearazteko behar diren lege-, finantza- eta antolaketa-neurriak sustatuko ditu.

Zioak: Planteatzen dugu prozesuak izan dezala mankomunitate bakoitzeko udal ordezkariaren legezko gehiengoaren oniritzia, uste baitugu Administrazioaren beste maila bat ari garela arautzen, kasu honetan Toki Administrazioa, eta, horrenbestez, udal autonomia errespetatu beharra dago.

Era berean, uste dugu epe bat ireki beharra dagoela plana jendaurrean jartzeko, herritarrek, horrela, zuzeneko parte-hartzea izan dezaten prozesuan, esparru instituzional hutsean egiten diren kontsultez haratago.

Azkenik, interes orokorreko zortzi mankomunitate planteatzen dira, eta uste dugu egiten dugun planteamenduak, zeinak abiapuntu hartzen baititu Nafarroako Lurralde Estrategiaren eremuak, hobeki errespetatzen duela egungo gizarte-errealitatea.

### 38. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MANU AYERDI OLAIZOLA**  
**ETA PATXI LEUZA GARCÍA**  
 JAUNEK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 53. artikulua 2. idatz-zatia aldatzen baita. Hona testu berria:

“2. Interes orokorreko mankomunitateak.

Interes orokorreko mankomunitateen xedea da kide dituen udalek haren gain utzitako zerbitzuak profesionaltasunez, eraginkortasunez eta efizientziaz ematea bere esparruko populazio osoari; horrekin batera, herritarren bizi kalitatea hobetzeko, beraien iritziz, eman behar dituzten gai guztiez ere arduratuko dira, bermatuz, betiere, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna, eta bikoizte administratiborik ez sortzea.

Lehenago aipatutako plan zuzendariarekin eta foru lege honetako zehaztapenekin bat eratutako interes orokorreko mankomunitateen helburua hau izanen da: udal eskumenekoak diren zerbitzuak ematea, baina, hain zuzen ere, mankomunitateak egon eta kasuan kasuko udalek beren borondatez eskuordetzea erabakitzen dizkietenak.

Interes orokorreko mankomunitateek bere gain hartu ahal izanen dituzte, halaber, beste gai batzuetako zerbitzuak eman eta betetzeko eginkizuna, udalek eskumenak eskuordetu ondoren, foru lege honen 30. artikuluaekin bat.

Interes orokorreko mankomunitatearen deklarazioa Nafarroako Gobernuak eginen du foru dekretu bidez, hura sustatzen eta osatzen duten udalek proposatuta; lehentasuna izanen dute Nafarroako toki ogasunek zergetan parte hartzeko funtsak banatzean, kapital transferentzien arloan”

Zioak: Hasierako testuan dagoen planteamenduan udalerriek beren zerbitzu mankomunitateak behin batean eta era itzulezinean integratu behar dituzte. Uste dugu proposatzen den testuak errespetu handiagoa diola prozesua –gure iritziz– gidatu behar duen borondatezko eta inposiziorik gabeko izaerari.

Beste alde batetik, onartzen badugu neurri bereziak behar direla udalerrien integrazioa sustatzeko mapa arrazionalizatuko duten entitate berrietan, ulergarria litzateke xede horretarako erabilteza inbertsioak egiteko kapital-transferentziak. Hala ere, ez zaigu arrazoizkoa iruditzen beren borondatez sartu nahi ez duten udalerriak bazter uztea,



toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsak, herriko oinarrizko beharrak estaltzeko transferentzia arruntetarako direnak, banatzean. Edonola ere, puntu honetan errespetatu behar da herritarren eskubidea Nafarroako zergetan parte hartzeko, biztanle-kopuruaren arabera, hori baita historian zehar gai honetan erabili den irizpidea.

### 39. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI  
MANU AYERDI OLAIZOLA  
ETA PATXI LEUZA GARCÍA  
JAUNEK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 53. artikulua 3. idatz-zatia aldatzen baita. Hona testu berria:

“3. Interes orokorreko mankomunitateak eratzeko prozedura.

Edozein kasutan ere, deskribatutako esparru horietako bakoitzean zerbitzu mankomunitateak dituzten udalek urtebeteko epea izanen dute, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita, kasuan kasuko interes orokorreko mankomunitateak eratzeko prozesua burutzeko”.

Zioak: Mankomunitate hauen kopurua handitzea proposatzen duen zuzenketa partzialarekin bat.

### 40. ZUZENKETA

**BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

“Hamalau. 53. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

1. Mankomunitateen berrantolaketa.

Nafarroako Gobernuak, lurraldetasun, eginkizunen aniztasun eta berdintasun irizpideetan oinarrituta, “Interes orokorreko eskualdeak” era daitezkeen sustatu, bultzatu eta pizgarriak emanen ditu; mankomunitate bakoitza bere lurralde esparruko udalek osatuko dute, foru lege hau onesten denean udal eskumenekoak diren zerbitzuak, batera emateko helburuaz, mankomunitate edo hitzartuta dituztenek eta, ordura arte zerbitzuak banaka eman ondoren, eskumena mankomunitateari eskuordetzen diotenen ere.

Ondorio horietarako, Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko gehieneko epean plan zuzentzaile bat eta txosten ekonomiko bat prestatuko ditu, egun dauden mankomunitate-erakundeak udalak eskualdeetan sartzeko”.

Zioak: Interes orokorreko mankomunitate horiek ez diete erantzuten gure erkidegoan hain errotuta dagoen eskualdeen errealitateari. Gainera errealitate estrukturala eta geografikoa falta ditu.

### 41. ZUZENKETA

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko bigarren artikuluari beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Hamalau bis atala, zeinak honako testu hau izanen baitu:

«Hamalau bis. Beste atal bat, V.atala, gehitzen zaio I. tituluko II. kapitulari. Honako testu hau izanen du:

V. atala. Eskualdeak.

53. bis artikulua.

1. Eskualdeak lurraldeko toki entitateak dira, nortasun juridikoa eta beren xedek betetzeko autonomia dutenak. Haietan batzen diren udalerrien ezaugarriek interes komunak ezartzen dituzte, berezko kudeaketa eskatzen dutenak edo udalez gaindiko zerbitzuak emateko esparru egokia eratzten dutenak.

2. Eskualdeak foru lege baten bidez sortuko dira, eta haren bidez zehaztuko dira eskualdeen izena, lurralde eremua, osaera, funtzionamendua eta gobernu organoen egoitza, eskumenak eta baliabide ekonomikoak. Udal bat ezin da eskualde bat baino gehiagotan egon. Eskualdeen lurralde-eremuaren edozein aldaketa, foru lege baten bidez eginen da, salbu eta:

a) Dagozkien udal barrutien mugak aldatzearen ondorioz bada.

b) Udalerri baten ekimenaz gertatzen bada, betiere lurraldeko jarraikortasuna bada gobernuaren udal barrutiaren eta sartu nahi duen eskualdeko udalerrien barrutien artean. Eskualdez aldatzeko, udal interesdunaren gehiengo osoaren erabakia behar da, herritarren artean egindako herri-kontsulta baten bidez berretsia, sartu nahi duen eskualdeko eskualde-kontseiluaren gehiengo osoaren onarpena, eta Nafarroako Gobernuak foru dekretu baten bidez onetsia izatea.

3. Eginkizunen arloan, udalerrii aitortzen zaizkien eskumen berberak dagozkie eskualdeei.

4. Eskualdeak eskumen berezkoak eta eskuordetuak bete ahalko dituzte. Berezko eskumenak izanen dira sortzeko foru legeak ematen dizkionak. Besteak beste, honako arlo hauetan bete ahalko dituzte.

- a) Lurraldearen antolamendua eta hirigintza.
- b) Udalez gaindiko intereseko parkeak.
- c) Ingurumenaren babesa.
- d) Gizarte-politikak, berdintasun-politikak eta gizarte-sustapena eta gizarteratzea.
- e) Ondare historiko-artistikoa, kultura eta kirola.
- f) Turismoaren sustapena.
- g) Merkatuak, hiltegiak, azokak eta erabiltzaileen eta kontsumitzaileen babesa. Herri-osa-sungarritasunaren babesa.
- h) Leku publikoetako segurtasuna eta babes zibila.
- i) Garraio publikoa, mugikortasuna eta ibilgailuen nahiz pertsonen joan-etorrien antolamendua bide publikoetan.
- j) Bide-garbiketa, eta hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzea.
- k) Udalez gaindiko hilerriak eta hileta zerbitzuak.
- l) Uraren ziklo integrala.
- m) Oinarrizko osasun-laguntzaren kudeaketan parte hartzea.
- n) Hezkuntza-administrazioak irakaskuntzaren programazioan parte hartzea.

5. Foru Komunitateari dagozkion eskumenak ezertan ukatu gabe, eskualde bakoitzaren eginkizuna izanen da batzen dituen udalerriei lankidetzeta eta laguntza ematea arlo juridiko-administratibon, ekonomikoan eta finantzarioan, obrak egiteko eta zerbitzuak emateko.

6. Halaber, eskualdeek ekimen publikoa baliatu ahalko dute eskualdearen interesekoak diren jarduera ekonomikoak egiteko, eta kasua denean eskubidea izanen dute parte hartzeko lurraldearen antolamenduko proiektuen prestaketan, eta haieran sartzen diren azpiegituretako eta zerbitzu publikoetako obren kudeaketan, eta beren interesak zuzeneko eran ukitzen dituzten gainerako gai guztietan.

53. ter artikulua.

1. Eskualdeko gobernu eta administrazio organoak lehendakaria, eskualde-kontseilua eta

eskualdeko gobernu batzarra izanen dira, ezertan ukatu gabe beste organo osagarri batzuk sortzea.

2. Lehendakariak eskualdearen ordezkari izanen du. Eskualde-kontseiluko kideek hautatuko dute, beraien artetik, eta alkateei aplikatzen zaizkien arau berak erabiliz. Lehendakariorde bat edo batzuk izendatu ahalko ditu, hura ordezteko eta ordezkapenak egiteko.

3. Eskualde-kontseiluak osoko bilkuretan eta batzordeetan funtzionatzen ahalko du, eta kontseilu hori osatuko duten kontseilarien zenbatekoa eskualdeko biztanle-kopuruaren arabera dagokiona izanen da, udaletan hautatu beharreko zinegotzien kopurua ezartzeko erabiltzen den arau bera aplikatuz. Bizilagunek hautatuko dute, zuzeneko eran, udaletarako diren hauteskundeetako arau berak aplikatuz. Edonola ere, eskualdeak batzen dituen udal bateko zinegotzi kargua bateragarria izanen da eskualde horretako kontseilari karguarekin. Edonola ere, batuta dauden udaletako alkateek, kideak ez badira, eskubidea izanen dute eskualde-kontseiluko osoko bilkuretara joateko, hizpidearekin baina botorik gabe.

4. Eskualdeko gobernu batzarra lehendakariak izendatuko du, eskualde-kontseiluko kideen artetik.

5. Toki araubideko legeetan talde politikoentzat ezartzen diren xedapenak aplikatu ahalko dira, halaber, eskualdeko gobernu organoen funtzionamendurako

6. Edonola ere, eskualdeei aplikatuko zaizkie foru lege honetan 92. artikulutik 96. ter artikulura herritarren parte-hartzeari eta informazioari buruz dauden xedapenak.

7. Arau espezifikorik egon ezean, eskualdeei aplikatuko zaie udalei dagokien araubide juridikoa.

53. quater artikulua. Iruñerriaren kasuan, foru lege batek metropoliko entitate bat sortuko eta arautuko du, dituen ezaugarri geografiko eta demografiko berezien arabera antolaketako berezitasunak sartuta”».

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat, eta entitateen tipologia soiltzeko eta arrazionalizatzeko. Udalez gaindiko entitateak derrigorrezko izaerarekin sortzeak zuzenketa honetan eta beste batzuetan proposatzen den eskemari erantzun beharko dio: eskualdeak, foru lege sortuak, udalez gaindiko eskumenak hartzeko, oro har, eta batasunak, foru dekretuz sortuak, administrazio zerbitzuak emateko eta langile komunak mantentzeko biztanle gutxiko udalerrietan.

Bideragarritasun ekonomikoari eta eskumenak hartzeari buruzko azterlanik ez dagoenez, bidezko prozedura da prozesu bat irekitzea, horretarako azterlanak behar den zorrotzasunez eginda, eskualdeen eta batasunen mapa bat sortuz amaituko dena. Helburu hori du zuzenketa honek, zeina eskualdea erakunde gisa definitzera mugatzen baita, eta helburu bera dute xedapen gehigarrien bidez sortze-prozesua arautzen duten beste zuzenketa batzuk.

#### 42. ZUZENKETA

##### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen baita, beste atal bat gehitzeko zuzenketa, hamalau bis atala.

«Hamalau bis. 56. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“56. artikulua.

1. Nafarroako toki korporazioek beren kideentzat aurrekontuetan esleitzen dituzten kargu-jardute-agatik kalte-ordain eta ordainsariak ezin izanen dituzte gaitzitu oro har ezarritako mugak.

2. Toki korporazioek ordain bat emanen dieten beren kideei, duten karguan aritzeagatik haien pertsonetan edo ondasunetan eragiten dizkieten kalte eta galerengatik.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hautapen bidezko udal karguen ordainketa sistemaren finantzaketan hartuko du parte, udal-lankidetzaren ekonomikoan izateko sistemaren bidez. Lankidetzaren sistema hori Nafarroako Gobernuak nahitaez betebeharrekoa izanen da, eta ez da ezarriko Nafarroako Gobernuaren erabakiz zehapeneko edo esleipen ekonomikoa kentzeko mekanismo subjektiborik”».

Zioak: Nafarroako Gobernuak udal politikan injerentziak egitearen aurka.

#### 43. ZUZENKETA

##### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, zeina Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa baita, hamalau ter atala gehitzeko zuzenketa.

«Hamalau ter. 60.1. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“60. artikulua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak eskumena du toki entitateen jarduerari buruzko informazio zehatza eskatzeko eta lortzeko, Nafarroari dagozkion gaitan legedia indarduna benetan betetzen den egiaztatzeko. Halaber, eskatu ahalko du espedienteak erakustea eta txostenak ematea, eta toki entitateek, berriz, beren aldetik gauza bera egiteko eskumena izanen dute”».

Zioak: Toki entitateetan ere Nafarroako Gobernuaren jarduerari buruzko zuzeneko informazioa izan behar dute.

#### 44. ZUZENKETA

##### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“61. artikulua.

1. Nafarroako Gobernuak berariazko inbertsio-planak ezarriko ditu obren finantzaketa eta exekuziorako; obra horien helburu nagusia izanen da bermatzea nahitaezkoak diren udal zerbitzuak emanen direla.

2. Toki inbertsioetako planak lau urterako ezarriko dira, udal hauteskundeak izan eta hurrengo urtetik aurrera kontatzen hasita.

3. Toki inbertsiorako planak obren zerrenda bat izanen dute, toki entitateek proposatu eta Nafarroako Gobernuak, administrazio biek negoziatu eta akordioa lortu ondoren, onetsiak.

4. Toki entitateak izanen dira ahalmena izanen dutenak erabakitzeke zer exekuzio izanen duten planetan onetsitako obrek, exekuziorako ezarria duten lau urteko epean betiere, eta behin Toki Administrazioiko Departamentuarekin adostuta”.

Zioak: Inbertsioen planteamendua toki entitate bakoitzaren benetako beharrekin harmonizatzea.

**45. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 65. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“65. artikulua:

1. Toki Araubideko Foru Batzordeak kide hauek izanen ditu: batzordeburua, toki araubidearen arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako kontseilaria; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko zuzenkeraren zuzendaria; Nafarroako Gobernuaren zuzendaria; eta toki entitateek hautatutako zazpi kide, hain zuzen ere merindade bakoitzeko bana –Iruñerria salbu–, Iruñerriko bi, eta Nafarroako udal elkarteetako edo federazioko ordezkari bat. Era berean, idazkari bat ere izanen du, lehendakariak batzordekideen artean hautatua.

2. Batzorde iraunkorraren osaketa erregela-menduz finkatuko da.

3. Batzordearen bilkuretara teknikariak ere joaten ahalko dira, teknikari gisara, aldeek izendatuta.”

Zioak: Toki entitateek erakundeen arteko batzordeetan duten ordezkariotasuna hobetzea, demokrazia areagotuz kideen hautaketan.

**46. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 70. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“70. bis artikulua.

1. Toki entitateen eskumen ororen gainean egiten ahalko dira udalen arteko lankidetzaren hitzarmen edo -akordioak; betiere, zerikusia duten toki entitate guztietan lortzen badute osoko bilkuraren baimena eta onspena.

2. Udalek eskumen propioak eskuordetzen ahalko dizkiete eskualde bereko zenbait udalen artean sortutako mankomunitateei edo eskualdeari berari zuzenean.

3. Ezin izanen zaio udal eskumenik eskuordetu udala parte den eskualdeaz kanpoko mankomunitate bati.

Zioak: Toki entitateen lankidetzan sakontzea, efizientzia eta efikazia handiagoa lortzearen.

**47. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluari, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen baita, beste atal bat gehitzeko zuzenketa, hamalau quater atala.

«Hamalau quater. 76. artikuluari 3. idatz-zatia gehitu zaio. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“76. artikulua.

1. Toki entitateetako kide hautetsiek beren esku izanen dituzte erakunde horietan dauden dokumentu eta artxibo guztiak eta haien eginkizuna betetzeko beharrezkoak direnak.

2. Toki entitateek erregelamendu bidez arautu ahalko dute eskubide horren egikaritzea. Eskaera modu arrazoituan ebatzi beharko du alkateak edo buruak edo tokiko gobernu batzarrak, toki entitateko erregistroan aurkeztu eta bost egun naturaleko epean. Udalbatzako kideei informazioa ukatzen dienak bere gain izanen du horren erantzukizuna.

3. Administrazioa gidatu behar duten gardentasuna eta parte-hartzea sustatzeko, zinegotzi guztiei astero emanen zaie, modu telematikoan, udal erregistroan izan diren sarreraren eta irteeren laburpen bat”».

Zioak: Udal korporazioko kide guztiek ahalik eta informazio gehien izan behar dute.

**48. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluari, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen baita, beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Hamalau quinquies atala.

«Hamalau quinquies. 78.2. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“2. Deialdian bileraren lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai-zerrenda ere. Gai-zerrendan dauden gaien agiri guztiak, eztabaidarako eta, kasua denean, bozketarako, oinarritzat erabiliko direnak. Agiriak udalbatzako kideen eskura egon beharko dira, idazkaritzan, deialdiko egunetik

beretik aurrera. Era berean, udalkideei informaziorako eta eztabaidan parte hartzeko aukera handiena ahalbidetzeko, agiri horiek udalbatzako kide guztiei igorriko zaizkie deialdiarekin batera, telematikaren bidez».

Zioak: Udal korporazioko kide guztiek ahalik eta informazio gehien izan behar dute.

#### 49. ZUZENKETA

##### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 80. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“80. artikulua.

1. Osoko bilkurak publikoak dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatutako herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.

2. Gai zerrendako azken puntua amaitutakoan, korporazioburuak udal intereseko gai zehatzei buruz hitz egiteko txanda eman diezaioke bertaraturako publikoari. Korporazioburuari dagokio txanda hori irekitzea eta ixtea.

3. Kasu berezietan, korporazioburuak, gai zerrendako puntu bat eztabaidatu ondoren, publikoak parte har dezala erabaki dezake, nahiz eta puntu hori ez izan gai zerrendako azkena; parte-hartze hori udal taldeetako eledunek beren hitzaldiak behin amaituta dituztenean izanen dira, eta bozketaren aurretik. Zinegotziek, nahi izanez gero, publikoko jendearen parte-hartzeen ondoren, erreplikarako eskubidea izanen dute.

4. Publikoak hitz egiteko eta parte hartzeko prozedura horrek, erabili ahal izateko, udalaren erregelamendu organikoan behar bezala jasota beharko du.”

Zioak: Herritarrek toki erakundeetan duten parte-hartzea areagotzea, horretarako bideak emanez.

#### 50. ZUZENKETA

##### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru

Legea aldatzen baita, beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Hamalau sexies atala.

«Hamalau sexies. 80.2. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

“2. Gai zerrendako puntu bakoitza amaitutakoan, korporazioburuak udal intereseko gai zehatzei buruz hitz egiteko txanda eman diezaioke bertaraturako publikoari. Korporazioburuari dagokio txanda hori irekitzea eta ixtea”».

Zioak: Toki entitateak dira herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak, eta herritarrek ahotsa eta zuzeneko parte-hartzea izan behar dute.

#### 51. ZUZENKETA

##### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 92. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“92. artikulua.

1. Nafarroako toki entitateek ahal den informazioz zabalena eskainiko dute bere jardunaz, eta herritar guztiek herriko bizitzan parte hartzea erraztuko dute. Era berean, elkarteak bultzatu eta herritarrek Toki Administrazioan parte hartzeko erakundeak sustatuko dituzte. Parte hartzeko elkarte eta erakundeen eta toki entitateen arteko harremanak erregelamendu organiko baten bidez arautuko dira.

2. Nafarroako toki entitateek herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantza bat onesten ahalko dute, non arautuko diren zer-nolakako harremanak izanen dituzten toki entitatearekin pertsona indibidualak eta herritarren parte hartzea helburu duten elkarte nahiz erakundeak.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren partaide-tza moduak garatzeko, elkarte eta erakunde horiei ekitaldiei buruzko ahalik eta informazio zabalena emanen zaie, eta bultzatuko da entitatearen kudeaketan parte har dezaten, aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera. Horretarako, legeak onartzen dituen duten herritarren partaidetza-elkarteek onura publikoko deklarazioa jasotzen ahalko dute.

4. Toki entitateek, eta bereziki udalek, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera elkarreragilea bultzatu beharko dute, herritarren partaidetza eta herritarrekiko komunikazioa errazteko, agiriak aurkezteko eta herritarren kontsultak,

inkestak nahiz administrazio-izapideak egiteko kasuko

lege-esparruaren arabera.

5. Zerbitzu jarduerak libreki jarri eta betetzeari buruzko arauen esparruan sartutako zerbitzu jarduera bat jarri eta betetzeko prozedura eta tramiteen kasuan, zerbitzu emaileek leihatila bakarra erabiliz bete ahal izanen dituzte, bide elektronikoaz baliatuz eta urrutitik, zerbitzua emateko erabiltzen diren tokiak edo ekipoa ikuskatzeko tramitea denan salbu. Era berean, toki entitateek sustatuko dute zerbitzuaren emaileek aukera izan dezaten leihatila bakarrean lortzeko jarduera jarri eta betetzeko behar diren informazioa eta inprimakiak, bai eta euren eskaerei dagokienez agintari eskudunek emandako ebazpenen eta gainerako jakinarazpenen berri izateko ere.

6. Foru Komunitateko administrazioak laguntza eman beharko die artikulu honetako 4. eta 5. idatzatietan ezarritakoa behar bezala garatu ezinik gertatzen diren entitateei, ekonomia eta kudeaketa arloan gaitasunik aski ez badute.

7. Toki entitateek bermatu beharko dute Nafarroako herritarren eskubide linguistikoei buruzko araudia beteko dela leihatila bakar elektronikoaren erabileran, bai eta herritarrek parte hartzeko sortzen joaten diren gainerako bide guztietan ere.”

Zioak: Herritarrek toki erakundeetan duten parte-hartzea areagotzea, informazio hobea emanez eta parte hartzeko bide berriak.

## 52. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 92. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“92. bis artikulua.

Toki entitateak, progresiboki, aurrekontu parte-hartzaileak deiturikoak inplantatzen joaten ahalko dira, horrelako aurrekontuak egitea funtsezkoa baita sustatzeko toki entitateetan herritarren parte-hartzea. Horretarako, parte hartzeko metodologia erabaki beharko dute herritarren parte-hartzeari buruzko udal ordenantzan.”

Zioak: Herritarrek toki erakundeetan duten parte-hartzea areagotzea, horretarako bideak emanez.

## 53. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, zeina Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa baita, hamalau septies atala gehitzeko zuzenketa.

«Hamalau septies. 92. bis artikulua gehitzen da; artikulua testua hau izanen da:

“92. bis artikulua:

Toki entitateek, progresiboki, aurrekontu parte-hartzaileak deiturikoak ezarriko dituzte, horrelako aurrekontuak egitea funtsezkoa baita herritarrek toki entitateetan parte har dezaten sustatzeko. Horretarako, parte hartzeko metodologia erabaki beharko dute herritarren parte-hartzeari buruzko udal ordenantzan edo parte-hartze efektiboa bermatzen duen bestelako edozein mekanismoren bidez”».

Zioak: Iruditzen zaigu herritarren parte-hartzea gero eta gehiago hartu beha dela kontuan, are gai ekonomikoetan ere.

## 54. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 93. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“93. artikulua.

1. Herritarrek eskubidea izanen duten toki entitateen organoen bilkura publikoetara joateko.

2. Udal batean errolatutako herritarrek aukera izanen dute beren izenean parte hartzeko bere udalaren batzorde informatiboetan, hizpidearekin baina botorik gabe. Horretarako, udal-erregistroan aurkeztu beharko dute eskakizuna, eta beren datuak adierazi, batzorde informatiboaren bileren deialdiak jaso ahal izateko, kasuan kasuko gai zerrendarekin batera eta toki entitateak ezarritako moduan.

3. Bileren deialdiak, korporazioko kideei jakinarazten zaien une berean, toki entitatearen edikzio-oholean iragarri beharko dira, eta toki entitatearen webgunean.”

Zioak: Herritarrek erakundeetan duten parte-hartzea areagotzea, horretarako bideak emanez.

**55. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 94. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“94. artikulua.

1. Legeak agindutako kasu eta moduetan jakinarazi edo argitara emateaz gain, toki entitateek beren gobernu- eta administrazio-organoei emandako ebazpen eta akordioen laburpen bat beren ediktu-oholean eta beren webgunean argitaratu beharko dute.

2. Horrezaz gain, berriazko legediarekin bat, toki kudeaketari buruzko informazio orokorreko aldizkari bat ere argitaratzen ahalko dute, eta bestelako baliabide grafiko edo ikus-entzunezkoak erabili ere bai.

Zioak: Herritarrek erakundeetan duten parte-hartzea areagotzea, horretarako informazio hobea emanez.

**56. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hamalau atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 96. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“96. artikulua:

1. Herri-kontsulta bidez, edozein gairi buruz galdetzen ahalko da, baldin eta udalaren eskumen propioa eta toki-izaerakoa bada, eta herritarren interesetarako garrantzi bereziko bada.

2. Legediak ez duenean uzten gai zehatzen bati buruz erreferendum loteslerik egiten, kontsultarako herri-kontsultak egiten ahalko dira.

3. Edozein kasutan, herri-kontsultan arauok errespetatuko dira:

a) Hauteskunde-eroldan dauden guztiek hartzen ahalko dute parte.

b) Deialdiak argi eta garbi adieraziko du zein izanen den galdera edo zein izanen diren galderak, eta kontsulta noiz eta non egin behar den ere bai.

c) Erreferenduma loteslea denean, Estatuko Gobernuaren baimena Nafarroako Gobernuaren

bidez eskatuko da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarien bidez eman beharko da ezagutzera erreferenduma, gutxienez ere bost egun lehenago.

d) [legean, e)] Kontsulta sufragio berdinean, zuzen eta sekretu bidez egiten da, eta erantzunak baiezkotzeko, ezezkotzeko ala zuriak izanen dira. Udalaren Osoko Bilkurari dagokio boto-txartelak, bozketarako gutun-azalak eta eratze- eta zenbaketa-aktak onestea.

e) [legean, f)] Korporazioan ordezkariak duten alderdi politikoek, koalizioek, federazioek edo hautesle-elkarteek ordezkari bat izendatzen ahalko dute kontsultaren buru egiten duen eta zenbaketa arduratuko den mahaian.

4. Foru lege batek, aurreko idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiz betiere, toki entitateetan herri-kontsultak egiteko prozedura arautuko du.”

Zioak: Herritarrek erakundeetan duten parte-hartzea areagotzea, horretarako herri-kontsultak egiteko bidea emanez.

**57. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko bigarren artikuluko Hamabost atala kentzeko zuzenketa (212. artikulua).

Zioak: Proiektuan agertzen den toki partzuergoen figura berriak ez du zentzurik; izan ere, ez du problemarik konpontzen, eta, aldiz, sor ditzake. Toki entitatearen izaera ematen bazaie partzuergo batzuei –partzuergoek, berez, izaera bereko administrazio publikoak bateratzen dituzte–, toki entitatearen araubide juridikoa aplikatuko zaie partzuergo horiei (funtzionamendua, prozedura, baliabideak, langileak, aurrekontua, etab.), eta araubide hori ez dago entitate horientzat pentsatua. Partzuergoek hori besterik ez dute izan behar: partzuergoak, sorburu dituzten arau espezifikoek, eta, kasuan-kasuan zer beharretarako diren, horietara egokitu beharrekoak.

**58. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hamabost atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 227. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“227. artikulua.

1. Toki entitateek administrazio klausula orokorren orriak eta agindu tekniko orokorren orriak ezarri ahalko dituzte. Orri horiek onestea Osoko Bilkurari edo entitatearen organo gorenari dagokio.

Administrazio klausula partikularren orriek eta agindu tekniko partikularren orriek ezin izanen dute izan orri orokorretan ezartzen denaren aurkako hizpaketarik, salbu eta orri horiek onesteko organo eskudunak baimentzen dituen kasuetan.

2. Toki entitate batek edo batzuek edo haiei lotuta dauden edo menpekoak diren entitate edo erakundeek salmenta-zentralak sortu edo eratzten badituzte edo Nafarroako beste administrazio publiko batzuek sustatutakoetara atxikitzen badira, aipatu zentralak lizitazio bakarrean entitate baten edo batzuen kontratu bat edo batzuk adjudikatu ahalko dituzte. Horretarako, loteak eginen dituzte irizpide geografikoei, ekonomikoei, prestazioen homogeneotasunari edo bestelako arrazoiei erreparatuz, betiere adjudikazio-hartzaileak hautatzeko edo entitateei behar dituzten prestazioak emateko aukera eman beharko dutenak, eragin-kortasunaren printzipioarekin bat.

Obra, hornidura edo laguntza kontratu batzuk batera baina lote berezitueta adjudikatzen badira, horiek denak edo horien parte bat ez direla aldi berean eginen ezartzen ahalko da, eta lizitatzailerei exijitu ahalko zaie lote batzuetarako edo guztietarako eskaintzak aurkez ditzaten. Nolanahi ere, hori guztia zehaztu beharko da administrazio klausula partikularren orrian edo kontratuaren baldintzetan eta lizitazioaren iragarkian adierazi beharko da.

3. Larrialdiko espedienteen tramitazio berezian, kontratazio organoa entitateko burua izaten ahalko da kasu guztietan, zeinak ondoren egiten den lehenbiziko osoko bilkuran eman beharko baitu egindakoaren berri.

4. Toki entitateek, lehiaketak egitean dituztenean zenbait udal-lan edo -zerbitzu kudeatuko dituzten enpresak edo entitateak kontratatuzko, klausulak jartzen ahalko dituzte puntuazio handiagoa emateko zenbait gizarte-arlotako jarduketei, zeinak baldintza-orrietan jasoko baitira. Gizarte-klausulatzat hartuko dira, besteak beste, lan-hitzarmen bidezko lan-harreman justua planteatzen dutenak kontratatutako enpresaren eta bere enplegatuen artean; bidezko merkataritzatik datozen produktuen erabilera proposatzen dutenak; ingurumenaren zaintzarako neurriak edo planak planteatzen dituztenak; enpresaren lanpostuen kontratazioan genero berdintasuna sustatzen dutenak; euskara jakitea eta erabiltzeko gaitzea bultzatzen dutenak, bai eta normalizazio linguistikoa bultzatzen dute-

nak bultzatzen dutenak ere; energia alternatibo ez-kutsagarriak erabiltzea planteatzen dutenak, eta Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 49. artikuluan jasotako gainerako guztiak”

Zioak: Toki entitateek kausa sozialak susta ditzaten bultzatzea.

## 59. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko bigarren artikuluari beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Hamabost bis atala, zeinak honako testu hau izanen baitu:

«Hamabost bis. 234. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“234. artikulua. Beharrezkoak diren eginkizun publikoen deskribapena eta horietan aritzea.

1. Nafarroako toki entitate guztietan beharrezkoak diren eginkizun publikoak hauek dira:

a) Idazkaritza lana, fede publikoa eta aginduzko lege-aholkularitza ematea barne direla.

b) Kontu-hartzailatza lanak, barneko kontrol eta fiskalizazioa, ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko aholkularitza eta kudeaketa eta, azkenik, kontabilitatea barne direla.

c) Diruzaintza lanak, funtsak erabili eta gordeztea eta dirua biltzea barne direla.

Oro har, idazkaritzako eta kontu-hartzailatzako eginkizun publikoetan aritzea Foru Komunitateko Administrazioak ematen duen gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta egonen da bakar-bakarrik. Diruzaintzako eta aginteko eginkizunak, berriz, foru lege honetan ezarritako determinazioen arabera gauzatzen ahalko dira.

Artikulu honetako aurreko idatz-zatietan ezarritako kasuetan izan ezik, ezinezkoa izanen da idazkaritzako, kontu-hartzailatzako eta diruzaintzako eginkizun publikoetan aldi berean aritzea berariazko lanpostua duten toki entitate batean baino gehiagotan.

2. Aurreko zenbakian adierazitako eginkizun publikoak honako hauen ardua izanen da:

a) Berariazko lanpostua duten udal, eskualde eta mankomunitateetan, kasuan kasuko entitateko langileena.

b) Kontzejuetan, eginkizun horiek batzarreko edo kontzeju irekiko kideek eginen dituzte, organo



horien gaikuntza badute. Langile gaitu horiek kargutik libreki kentzen ahalko dira.

Tradiziozko toki batasunetan, beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan xedatzen denari jarraikiz eginen dira.

d) Berariazko lanposturik ez duten eskualde eta mankomunitateetan, 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatutako eginkizunak, toki entitate elkartuetako batean eginkizun horietan aritzen direnei esleitzen ahalko zaizkie, hala eskatuz gero, edo eskaerarik ez bada, nahitaez, txandaka. Horrelakoetan, mankomunitateak zehaztuko duen ordain-saria jasoko du, betiere eginkizuna hartzen duen langileak aitortua duen mailari dagokion hasierako soldataren ehuneko hamar gutxienez.

3. Aurrekoa gorabehera, titularrak kanpoan, gaxorik edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea ematen duen beste administrazio egoera batean badago, eta orobat, lanpostua behin betiko betetzeko arau-eragozpen bat badago, edo funtzionario batek betetzeko deitutako lanpostu hutsa aldi baterako bete behar bada, idazkaritzako eta kontu-hartzailezako eginkizun publikoetan honako hauek aritzen ahalko dira:

Entitateko plantillako langile finko bat, lanpostu horretan aritzeko behar den titulazioa badu eta entitateak horretarako gaikuntza halabeharrez eman badio, edo deialdi baten bidez hautatutako pertsona bat, administrazio araubidean aldi baterako kontratatua.

Behar den foru gaikuntza duen funtzionario bat, beste toki entitate batean aritzen dena, behar bezala frogatzen bada ezinezkoa izan dela lanpostu horiek aldi baterako betetzea aurreko idatz-zatian aurreikusitako aukeren bidez, edo betetzeko tramitazioak irau bitarte. Horretarako, lehenago, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio eta ukitutako toki entitateen baimena lortu beharko da».

Zioak: Eskualdeak sartzten direnez, beharrezkoak diren eginkizunen arautzea egokitzea, beste zuzenketa batzuetan egin den bezala.

## 60. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko bigarren artikuluari beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Hamasei bis atala, zeinak honako testu hau izanen baitu:

«Hamasei bis. 243. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“243. artikulua. Idazkari lanpostua

1. Idazkari lanpostuak esleituta izanen ditu fede publikoa ematearen administrazio-erantzukizuna eta aginduzko lege aholkularitzakoa; erantzukizunok foru lege honetako 239. eta 239. (bis) artikuluetan daude adierazita.

Idazkari lanpostuaren eginkizun izanen dira, era berean, kontu-hartzailezako eginkizunak, 244. artikuluan ezarritakoaren arabera kontu-hartzailearen lanposturik ez duten toki entitateetan, eta, orobat, toki entitate horren bulego eta zerbitzuak antolatu eta zuzentzeko eginkizunak, kudeaketa-lanak egiten dituen A mailako beste pertsona bati esleituta ez daudenean.

2. Honakoetan izanen da idazkari lanpostua:

a) 2.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietan.

b) Eskualdeetan.

c) Tradiziozko batasunetan, baldin eta hala badago xedatuta beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan.

d) Batasunetan eta gainerako toki entitateetan, sortzen dituen arauak hala ezartzen duenean.

3. Idazkariordearen lanpostua 25.000 biztanletik gorako eskualde eta udaletan bakarrik sortzen ahalko da, eta postu hori, kasu bietan, idazkarien lanpostuentzat ezarritako arauetara lotuko zaie».

Zioak: Eskualdeak sartzten direnez, egokitu egin behar da beharrezkoak diren eginkizunen arautzea, beste zuzenketa batzuetan egin diren egokitzeekin bat.

## 61. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko bigarren artikuluari beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Hamasei ter atala, zeinak honako testu hau izanen baitu:

«Hamasei ter. 244. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzirik:

“244. artikulua. Kontu-hartzaile lanpostua

1. Kontu-hartzaile lanpostuak foru lege honen 240., 240 (bis) eta 240 (ter) artikuluetan adierazitako eginkizunen administrazio-erantzukizuna izanen du esleitua.

Kontu-hartzaile lanpostuari berez dagozkion eginkizunetaz gain, diruzaintza lanak ere egin

beharko ditu, diruzainaren lanposturik ez duten entitateetan.

2. Kontu-hartzailearen lanpostua honako entitate hauetan izanen da nahitaezkoa:

a) 3.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietan.

b) Eskualdeetan.

c) Tradiziozko batasunetan, hala badago xedatuta beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan, eta, betiere, azken bost urteetan urteko gastu arrunta hiru milioi eurotik gorakoa izan bada.

d) Batasunetan eta gainerako toki entitateetan, sortzen dituen arauak hala ezartzen duenean.

Zioak: Eskualdeak sartzen direnez, egokitu egin behar da beharrezkoak diren eginkizunen arautzea, beste zuzenketa batzuetan egin diren egokitzapenekin bat.

## 62. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko bigarren artikuluari beste atal bat gehitzeko zuzenketa, Hamasei quater atala, zeinak honako testu hau izanen baitu:

«Hamasei quáter. 244.bis artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“244. bis artikulua. Kontu-hartzaileen lanpostuen sailkapena.

1. Kontu-hartzaileen lanpostuak honela sailkatzeko dira:

a) Kontu-hartzailea, “A taldekoa”, 7.000 biztanle baino gehiagoko eskualde eta udalerrietan.

b) Kontu-hartzailea, “B taldekoa”, foru lege honetako 244.2 a) artikulua aipatzen dituen gainontzeko udalerrietan.

2. Gainerako toki entitateetan, kontu-hartzailearen lanpostua nolakoa izanen den entitate hori sortu duen arauan egonen da zehaztuta.

3. Dena dela, biztanle kopuruaren bilakaeraren arabera edo beste zirkunstantzia batzuegatik, entitateari duena baino maila altuagoko kontu-hartzaile bat baldin badagokio, lanpostu hori salbuesita egonen da gerora etorritako sailkapenaren arabera gaikuntza duten langileekin bete beharretik, betiere sailkapen baxuagoa izanik lan horiek egiten dituen funtzionarioaren egoera pertsonalak iraun arte. Horrelakoetan, funtzionarioak eginkizun

horietan segitzen ahalko du, baina daukan mailatik goragoko gaikuntzarik eskuratu gabe.

Zioak: Eskualdeak sartzen direnez, egokitu egin behar da beharrezkoak diren eginkizunen arautzea, beste zuzenketa batzuetan egin diren egokitzapenekin bat.

## 63. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamasei atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 259. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“259. artikulua.

Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta esleituak dituzten helburuak bete ditzaten, toki ogasunei baliabide ekonomikoak emanen zaizkie, betiere kontuan hartuta nahikotasun finantzarioaren printzipioa.”

Zioak: Nahikotasun finantzarioaren printzipioa aipatzea Toki Ogasunei buruzko Legea aldatzeko printzipio gisa.

## 64. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari, zeina Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko buruzkoa baita, Hamasei bis atala gehitzeko zuzenketa.

Hamasei bis. 259. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, artikulua testua hau izanen da:

«”259. artikulua.

Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta esleituak dituzten helburuak bete ditzaten, nahitaezkoa izanen da toki ogasunei behar adina baliabide ekonomiko ematea, nahikotasun finantzarioaren printzipioa derrigorrezko oinarri dela, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean arautzen den bezala”».

Zioak: Toki entitateen problemak zuzenean daude lotuta finantza-ahalmen ezarekin.

**65. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamasei atala aldatzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“260. artikulua.

1. Nafarroako toki entitateetako ogasunek hauek izanen dituzte diru iturburu: entitatearen beraren tributu propioak, Nafarroako Foru Komunitateko eta Estatuko tributuetatik dagokien parte, eta bestelako baliabide batzuk, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legearekin bat datozenak eta lege horretan ezarritako irismenarekin.

2. Toki entitateen tributu propioak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legean zehaztutakoak izanen dira; foru lege hori, behin lege hau onetsita, berrikusi eta gaurkotu egin beharko da.

3. Nafarroako Foru Komunitateak, transferentzia arrunten bidez, guztira dituen tributu bidezko diru-sarreraren gutxienez ere % 13 helaraziko die Nafarroako toki ogasunei, horiek aurre egin ahal izan diezaieten beren eskumenak betetzearen ondorioz dituzten gastuei.

4. Nafarroako Gobernuarenak izanda ere toki entitateek beren gain hartutako eskumen jakinak konpentsatzeko ematen diren diru-laguntza finalistak kendu egiten dira. Gastu hori ordainduko da banatuz Nafarroako Foru Komunitateak tributu bidez urtean dituen diru-sarreraren ehuneko jakin bat, gorago aipatu dena.

5. Lau urteko planetan onetsitako obra eta azpiegiturak transferentzia arrunt horrekin finantzatuko dira, Nafarroako Foru Komunitatearen tributu bidezko diru-sarreretatik aipatu den ehunekoaren arabera. Toki entitateek beren kasa erabakiko dute zer oinarritzko azpiegitura eta obra eginen diren ekitaldi bakoitzean, Nafarroako Gobernuak transferitutako kapitala kontuan hartuta.

Aurrekoa ez da eragozpen izanen Nafarroako Gobernuak, toki entitateekin lankidetzan, Nafarroako udaletan egin beharreko oinarritzko azpiegituren plan estrategiko bat onesteko, lege honetako 61. artikuluan jasotzen den moduan.”

Zioak: Kapital-banaketarako irizpide objektibo bat ezartzen da, transferentzia arrunten bidez. Toki entitateak finantzatzeko sistema horrek erabat errespetatzen ditu bai udal autonomiaren printzipioa, bai nahikotasun finantzarioaren printzipioa.

**66. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamasei atalean beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. bis artikulua. Hona testua:

“260. bis artikulua.

1. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen legean ezarriko da Nafarroako Foru Komunitatean urtean tributu bidez izaniko diru-sarreretatik zer proportzio zehatz bideratuko den toki entitateen finantzaketara; ehuneko hori ez da inola ere izanen ekitaldi horretarako aurreikusitako tributu bidezko diru-sarrera guztien % 13 baino txikiagoa.

2. Kontuen Ganberak, aldizka, toki entitateen eskumenekoak diren zerbitzu publikoen gastua aztertuko du, eta, horren emaitza gisa, kalitate- eta gastu-estandarrak proposatuko ditu, zeinak eguneratuko eginen diren aldizka; estandar horien arabera joango da egokitzen transferentzia arrunten banaketa.

3. Honakoak hartuko dira kontuan Nafarroako Gobernuak toki entitateei egin beharreko transferentzien banaketarako irizpide gisa: zer eskumen erabiltzen dituzten toki entitate horiek eta zer kalitate- eta gastu-estandar ezarri dituen Kontuen Ganberak entitate horietako bakoitzarentzat; udal bakoitzaren behar ekonomikoa, behin toki-tributuen bidez izandako diru-sarrerak kenduta, irizpide dela betiere gehiago ematea diru-sarrera gutxien izan dituenari; eta udalerraren biztanle-kopurua.”

Zioak: Irizpide objektiboak ezartzera iristea toki entitate bakoitzari transferentzia arrunten bidez egin beharreko kapital-banaketarako.

**67. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamasei atalean Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 274. artikulua aldatzeko gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“274. artikulua.

Kontuen Ganberak urtero auditatuko ditu 5.000 biztanle baino gehiagoko toki entitate guztiak, edota urteko aurrekontua bost milioi euro baino handiagoa dutenak.”

Zioak: Toki entitateak fiskalizatzea, zuzen funtziona dezaten.

### XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### **68. ZUZENKETA**

##### **ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria kentzea.

Zioak: Finantzaketa-sistema proposatu da dagoeneko aurreko zuzenketetan, eta, beraz, ez da beharrezkoa azterketa-taldea osatzea.

#### **69. ZUZENKETA**

##### **FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Lehen xedapen gehigarria. Toki finantzabiderako sistema berrikustea.

Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igo-riko du Nafarroako Parlamentura, toki finantzabiderako sistema berria antolatu eta arautuko duena, printzipiotzat harturik lurraldeen arteko elkartasuna, proportzionaltasuna, udalen arteko ekintza, efizientzia, eta nahikotasun eta iraunkortasun finantzarioa.

Toki finantzaketa sistema berria taxu-terakoan, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateen ordezkari-za batek hartuko du parte, lurraldearen aldetik orekatua, zeinak kontuan hartu beharko baitu, erreferentzia-irizpide gisa, egokitu egin behar dela egungo zerga- eta tributua-sistema, halako moduz non toki egituren iraupena ziurtatzeko modua egonen den, horiek baitira ordezkari-za-za-za eta parte-hartze publikorako bide nuklearra.”

Zioak: Asmoa da bermatzea ezen toki entitateen finantzaketa aldatzeko proposamena zehazteko

abian jartzen den lantaldean egonen dela Nafarroako lurralde-esparru guztia hartuko duen toki entitateen ordezkari-za handiago eta adierazgarriago bat, eta ez soilik iragarri diren kideek osatua, hau da, Iruñerriko Mankomunitateak eta Erriberakoak.

Bestalde, ezabatu egiten dira 2. eta 3. idatz-zatietan ezarritako erreferentzia-irizpideak, zeinen bitartez Toki Ogasunak Nafarroako zergetan parte hartzeko funts bakarra sortzen den. Helburua da lantalde hori izan dadila zehaztuko duena zein izanen den formularik egokiena etorkizunean, bai eta, kasua bada, parte-hartze-irizpide buruzko zer irizpidek inspiratuko duten formula hori.

#### **70. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

«Bigarren xedapen gehigarria. Idazkariak eta kontu-hartzaileak.

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 243.2c) eta 244.2c) artikuluetan adierazitako ondorioetarako, lege testu horren 53. artikuluan ezarritakoa betez eratzen diren interes orokorreko eskualdeetan idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu bana egonen dira. Ondorio horietarako, halaber, foru lege horren 46. artikuluan ezarritakoa betez eratzen diren udal batasunek ere lanpostu kopuru hori izanen dute beharrezkoak diren eginkizun publikoak betetzeko, non ez den komenigarritzat jotzen, mankomunitate horiek sortzeko onesten diren foru dekretuetan, eginkizun horiek batera betetzea.

2. Sortzean hutsik dauden lanpostu horiek funtzionarioen araubidean betetzeko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen VII. titulu-ko II. kapitulu-ko 3. sekzioan ezarritako prozedura erabiliko da, ahalik eta azkarren eskainiz, beste arrazoi batzuegatik hutsik geratutako gainerako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuekin batera, funtzionarioen araubidean betetzeko modukoak badira.

3. Edozein modutan ere, Nafarroako Lurralde Estrategiaren azpierre- mu batean elkarturik ez dauden udaletako batean dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, edozein arrazoiengatik hutsik geratzen direnak, ez dira sartuko foru lege horren 248. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen den zerrendan, funtzionario araubidean bete daitezkeen idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen zerrendan alegia, Nafarroako Gobernuak dekretatzen

badu zerbitzu administratiboetarako batasun batean sartzea, foru lege honen aurreikuspenak direla eta”».

## 71. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Interes orokorreko mankomunitateen ordez eskualdeak proposatzen diren beste zuzenketa batzuekin bat.

## 72. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko laugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Interes orokorreko mankomunitateen ordez eskualdeak proposatzen diren beste zuzenketa batzuekin bat.

## 73. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuari xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«”Xedapen gehigarria. Eskualdeak eratzeko prozesua.

1. Foru lege hau onetsi eta, gehienez ere, hemezortzi hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat edo batzuk igorriko dizkio Nafarroako Parlamentuari, eskualdeak sortzeko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Legeko 53. eta 53.bis artikuluetan jasotzen diren xedapenen arabera.

2. Dagokion aurreproiektua prestatu aurretik, eta Nafarroako Lurralde Estrategiaren hamar eremuen eskualde mapa abiapuntutzat hartuz, Nafarroako Gobernuak kontsulta eta parte-hartze prozesu bat irekiko du udalekin, haietako bakoitzak eskualde mapa horretan sartzeari buruz duen iritzia ezagutzeko.

3. Edonola ere, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu hori edo horiek prestatzeko prozedura hasteko azterlan bat prestatuko eta argitaratuko du. Bertan aztertuko da nolako bideragarritasun ekonomiko eta funtzionala duten sortu nahi diren

eskualdeek, kontuan hartuz lurraldeari, biztanleei, jarduera ekonomikoei, egitura administratiboari eta garrantzitsuak diren bestelako alderdi batzuei buruzko datuak.

4. Lege aurreproiektu hori edo horiek prestatu eta gero, berriz ere kontsulta egingo zaie ukitutako udalei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta jendaurrean jarriko dira hiru hilabeteko epean.

5. Jendaurreko aldiaren emaitza ikusita, Nafarroako Gobernuak eskualdeak sortzeko foru lege proiektua edo proiektuak onetsiko ditu. Bertan inplantazio-prozedura jaso beharko da, ondotik datozen idatz-zatiek aipatzen dutena.

6. Sortzen diren eskualdeen lurralde esparruan mankomunitaterik baldin badago eta haien helburuak bat baldin badatoz, osorik edo hein batean, eskualdeek beren gain egiazki hartzen dituzten eskumenekin, eta alde zuzenetik mankomunitateek eta udal mankomunitateek beraiek desegiteari buruzko erabakia hartuta, honako agindu hauek beteko dira:

a) Eskualdeak mankomunitateen ondorengoak izanen dira, eginkizun mankomunitateen titular gisa. Hori dela eta, mankomunitateek eskualdeei dagozkien eginkizun eta zerbitzuak eta horretarako atxikitako baliabideak eskualdatuko dizkiete, horietan barne zerbitzu mankomunitateak finantzatzeko edozein entitatek eman dituen inbertsioak eta gastu arruntetarako transferentziak.

b) Eskualdeek eta mankomunitateek behar diren neurriak hartuko dituzte mankomunitate bat, duen xedea amaitzeagatik, desegiten eta likidatzen denean, dagozkien zerbitzuak ematearen jarraipena bermatuta egon dadin.

c) Ordura arte mankomunitateek eman dituzten zerbitzuetan subrogatzeak eskualdeak ez du berez ekarriko zerbitzuaren estatutuen arabidea aldatzea erabiltzaileekiko eta, kasua bada, emakida-hartzaileekiko.

8. Mankomunitate batean hainbat eskualdetako udalerriak badaude, ukitutako toki entitate guztiek zehaztu beharko dituzte mankomunitatearen xedetatik zeintzuk hartu ahal dituzten beren gain eskualde batek edo guztiek, eta behar diren erabakia hartuko dituzte mankomunitatearen estatutuak aldatzeko edo mankomunitatea desegiteko. Azken kasu honetan aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

9. Edonola ere, eskualdeek, iraungi diren mankomunitateen xedeak beren gain hartzearekin batera, hitzarmenak formalizatu ahalko dituzte eskualde mugakideekin edo horietako udalekin,

iraungitako mankomunitateak betetzen zituen xedeak ezarritako moduan betetzen direla bermatzeko. Era berean, eskualdeak eratzeko prozesua amaitu eta gero gelditzen diren mankomunitateek hitzarmenak egin ahalko dituzte eskualdeekin edo haietako udalekin, zerbitzuen kudeaketan koordinazioa eta lankidetzaz egokia izateko.

10. Aurreko idatz-zatietan biltzen diren xedepanak aplikatzekoak izanen dira, halaber, partzuergoen eta elkarte izaerako bestelako eskualdeek kasuan, dituzten xedeak eskualdeek beren gain egiazki hartzen dituzten eskumenekin, osorik edo hein batean, bat baldin badatoz».

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat, eta eskualdeak sortzeko eta ezartzeko prozedura bat arautzeko eta toki entitateen tipologia sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko, oraingo mankomunitateak, partzuergoak edo bestelako entitateak ordeztzeko prozesu baten bidez.

## 74. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Iruñerriko Metropolitiko Entitatea.

1. Aurreko xedapen gehigarriak arautzen duen eskualdeak eratzeko prozesuan Iruñerriko metropolitiko entitate bat sortuko eta arautuko da, dituen ezaugarri geografiko eta demografiko berezien arabera antolatetako berezitasunak sartuz.

2. Metropolitiko entitate horri buruzko kontsulta egiteko hasierako esparrua gaur egun Eskualdeko Hiri Garraioan sartzen dena izanen da.

3. Metropolitiko entitatea izanen da, kasua denean, Iruñerriko Mankomunitatearen ondorengoa zerbitzuen titulartasunean eta kudeaketan; entitate hori sortzen duen arauak jasoko ditu zerbitzu emanen dituen”.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat, eta eskualdeak eratzeko prozesua osatzeko.

## 75. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuari xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Eskualdeak eratzeko prozesura egokitzeko neurriak.

1. Behin eskualdeak eratzeko prozesua amaituta, Nafarroako Gobernuak bateratu egingen ditu Foru Komunitateko departamentuek beren karguko zerbitzuak antolatzeko eta kudeatzeko aplikatzen dituzten barrutiak, eskualdeetakoak eta udalez gaindikoak, helburua baita eskualdeen mapa homogeneizatzea eta hori izan dadila zerbitzu periferikoen oinarri geografikoa, halako moduz non zerbitzuok joan daitezten beti eskualde bati edo eskualde-multzoz bati lotuak.

2. Nafarroako Gobernuak sistematikoki formulatuko ditu legedi sektoriala aldatzeko proiektuak, horietan eskualdeei dagozkien eskumenak sartzeko”.

Zioak: Eskualdeak eratzeko prozesua jasotzen duten beste zuzenketa batzuekin bat.

## 76. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuari xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Udalen batasunen berrantolamendua.

1. Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak udal batasunak berrantolatzeari buruzko plan zuzendari bat prestatuko du, non jasoko baita zer aurreikuspen ekonomiko eta funtzional diren beharrezkoak entitate horiek arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko. Ukitutako udalei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari plana emanen zaie kontsultarako, eta Lurralde Mugaketako Foru Batzordeari eta Toki Araubideko Foru Batzordeari, txostena egiteko, hiru hilabetez; ondoren, Nafarroako Gobernuak erabakiz onetsiko du.

2. Plan zuzendariak izanen duen udal batasunen mapa, hasiera batean, Nafarroako Lurralde Estrategiaren 40 azpierrezuetan oinarrituko da, nahiz eta entitate horien mugak zehazteko kontuan hartzen ahalko diren ondoko zirkunstantziak:

a) Ukitutako udalak lehendik sortutako udal batasun baten parte izatea.

b) Aipatutako 40 azpierrezuetako bakoitzean kokaturik dauden udallerrietako biztanle kopuru desberdinak.

c) Jarduketa esparruan idazkaritza eta kontuhartzaitza eginkizun publikoak betetzeko izenda-

tutako funtzionarioek lehenagotik duten egoera juridikoak. .

d) Antolaketa aldetik komenigarri izatea, aipatutako lurraldeko beste azpiero edo eremu batzuetako udalerrri mugakideen kokapen geografikoa dela eta.

3. Nafarroako Gobernuak, behin aurreko idatzatzen aurreikusitako plan zuzendaria onetsita, plan horretan identifikatutako batasun bakoitzeko foru dekretu bat onetsiko du batasuna sortzeko.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat, eta entitateen tipologia soiltzeko eta arrazionalizatzeko. Udal batasunak berrantolatzeke plan zuzendariak ez du egon behar 6/1990 Foru Legearen artikuluko batean, baizik eta xedapen gehigarri batean.

#### XEDAPEN IRAGANKORRARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 77. ZUZENKETA

#### **BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eskumenak argitu gabe, ezin dugu murriztu kontzejuek toki ogasunen funtsetan duten parte-hartzea.

### 78. ZUZENKETA

#### **IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankorra. Eskualde-kontseiluen hautatzea.

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu lehenbiziko kontseiluen hautatzea, foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera, 2015eko maiatzeko udal hautaskundeekin batera gerta dadin.

Zioak: Eskualdeak eratzeko prozesua jasotzen duten beste zuzenketa batzuekin bat.

### 79. ZUZENKETA

#### **FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen iragankorra. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak

Gaituta dauden funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak betetzeko deitzen den lehenbiziko merezimenduen lehiaketan, nahitaez hartuko dute parte inskribatuta daudenek Idazkaritzaren eta Kontu-hartzailetzaren Eginkizun Publikoetan Aritzeko Gaituen Erregistroan, zeina Toki Administrazioiko kontseilariak emandako maiatzaren 31ko 148/2005 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen (ekainaren 17ko NAO), baldin eta ez badute karre-rako funtzionario baten lanpostuaren jabetza hartu.

Zioak: 1984 baino lehenagotik gaituta dauden zenbait idazkariren egoeraren ondorioz, gatazka judizial batzuk sortu dira; Foru Administrazioaren jardun eza dela-eta idazkarion egoera anomaloak bere horretan jarraitzen du. Xedapen iragankor honekin, zeina bat datorren 11/2004 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatiko hirugarren lerrokadan ezarritakoarekin, gatazka horiek konpondu egin nahi dira.

### 80. ZUZENKETA

#### **ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa:

“1. Lege-aldaketa honek indarra hartu eta hurrengo aurrekontu ekitaldia amaitzen denean, Nafarroako toki entitateen aurrekontuak ebaluatzeke talde bat eratuko da, Toki Administrazioiko Departamentua buru duela. Talde horren eginkizuna izanen da aztertzea transferentzien esleitze berria eta banaketa-metodologia, bai eta detektatutako akatsen zuzenketa proposatu eta hobetzeko proposamenak aurkeztea ere.

2. Lantalde horretan, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuak bi ordezkari izanen ditu, Kontuen Ganberak ordezkari bat, eta Nafarroako Parlamentuan une horretan den parlamentu-talde bakoitzak ordezkari bana; toki entitateek, halaber, bost ordezkari hautatuko dituzte,

hain zuzen ere bat merindade bakoitzeko, Iruñerria izan ezik; Iruñerriak bi ordezkari izanen ditu, eta Nafarroako udalen elkarte edo federazioek ordezkari bat.

**AZKEN XEDAPENARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

**81. ZUZENKETA**

**FORU PARLAMENTARI  
MANU AYERDI OLAIZOLA  
ETA PATXI LEUZA GARCÍA  
JAUNEK AURKEZTUA**

Azken xedapena aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Azken xedapena. Indarra hartzea

Foru lege honek ez du indarra hartuko, harik eta ez den onesten lehen xedapen gehigarriak aipatzen duen toki-finantzaketarako sistema berria.”

Zioak: Gure ustez, erkidegoaren toki-berrantolamenduak indarra hartu aurretik, zehaztu egin behar da toki eskumenen esparrua, eta, halaber, udalen

finantzaketarako sistema egonkor eta nahiko bat onetsi ere bai, toki-berrantolamenduaren oinarri izateko modukoa izanen dena.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

**82. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zioen azalpenak islatzen duena da toki agenteen arteko kontsentsu nahikorik izan ez duen lege proiektu bat, gure toki entitateen problema benetakoak konponduko ez dituzten irizpide birzentralizatzaileei jarraitzen diena.







---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa.**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizilean argitara dadin ondoko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa: "Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa". Proposamen hori 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**BILDU-NAFARROA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua ordeztuko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"1. artikulua. Hidrokarburu ez-konbentzionalak esploratzeko eta ustiatzeko debekua.

a) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan ezartzen denez (abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa), Nafarroak eskumenak ditu ingurumenaren babesean nahiz jarduera ekonomikoaren plangintzan eta garapen ekonomikoaren sustapenean Nafarroaren barnean. Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean debekatu egiten da hidrokarburu ez-konbentzionalak esploratzea eta ustiatzea, edozein dela ere erabiltzen den teknika.

b) Honakoak hartuko dira hidrokarburu ez-konbentzionaltzat: harri aman harrapatuak dauden

hidrokarburu likido nahiz gaseosoak, harri horren iragazkortasuna milidarcy 1 baino gutxiagokoa denean, bai eta ikatz- edo harrikatzen zainetan harrapatuta dauden hidrokarburu gaseosoak, baldin eta ez balira irtengo edo askatuko gizakiaren jardunik gabe".

Zioak: Beharrezkoa da terminologia esplizitua erabiltzea, bidea emanen duena hidrokarburu ez-konbentzional horiek identifikatzeko, helburu hartuta horiei benetako definizio bat ematea. Izan ere, zailtasuna eragiten duena da ez dagoela bereizterik hidrokarburu moten artean, hau da, hidrokarburu konbentzionalen eta ez-konbentzionalen artean; ezinezkoa da, gaur egun, zehaztasunez ebaztea "daukan petrolioa edo gasa ateratzeko pitzatu beharra dagoen harri-formazio ez-porotsu batean" dauden hidrokarburuak ote diren. Horregatik nahi dugu lege proposamenean argitu zer hartuko den hidrokarburu likidotzat eta gaseosotzat, harri-formazio ez-porotsu baten barruan harrapatutako harri amako petrolio eta gasak barne direla, kontuan hartuta harri-formazioaren iragazkortasuna, milidarcy unitateetan zehaztua, edo harriaren kalitatea eta ezaugarriak (ikatz- edo harrikatzen zaina).

Era berean, gure eskumenak baliarazi behar ditugu gure jardun ekonomikoa eta garapen-eredua planifikatzean. Horrela, trantsizio energetikoa, iraunkorra gertatuko den beste energia-eredu berri baten alde egin behar dugu apustu eta horrekin konprometitu, eta uko egin behar diogu baliabide publiko nahiz pribatuak erabiltzeari hidrokarburu berrien ikerketarako nahiz ustiapenerako; modu horretan, Nafarroak erabat konprometituta jarraituko du energia berriztagarriekin.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu- lua aldatzen dituen.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu-  
lua aldatzen dituen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Patxi Leuza García jaunak aurkeztu zuten, eta 2013ko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta

II. tituluko VIII. kapitulu-  
lua aldatzen dituen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidez-  
tea, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneke, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko irailaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentari-  
ek zuzenketak aurkeztu ahal-  
ko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak agertzen du bere borondatea dela Iruñeko Udalak berrazter dezan Nagore Laffageren omenezko antzezlanaren estreinatze baimena ukatzeko erabakia.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak agertzen du bere borondatea dela Iruñeko Udalak berrazter dezan Nagore Laffageren omenezko antzezlanaren estreinatze baimena ukatzeko erabakia, eta eskatzen du bidezkoak diren neurriak har daitezen haren estreinaldia errazteko.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela erakunde guztiek lan egitea eta konpromiso aktiboa hartzea genero indarkeriaren gaineko sentsibilizazioari dagokionez. Hori dela eta, erakunde guztiak premiatzen ditugu parte har dezaten eta sostengua eman diezaieten herritar taldeek sexu-erasoen prebentzioa sustatzeko abian jartzen dituzten ekimenei.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Justiziako langileei.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die justiziako langileei.

2. Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera agertzen du Nafarroako Gobernuak eskura dituen legezko bideak ezar ditzan bereizkeria bidegabe hori ez gauzatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bidezkoa dela Nafarroako Gobernuak erantzutea justiziako langileen gaixotasunagatiko aldi baterako lan-ezintasuneko egoerei, dagokion kontusailaren kargura, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillako gainerako langileen baldintza beretan.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen baitu Espainiako Gobernuak onetsi nahi duen bekei buruzko Errege Dekretuaren zirriborroa dela-eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Espainiako Gobernuak udan onetsi nahi duen bekei buruzko errege dekretuaren zirriborroa dela-eta, bertan aurreikusten baita, besteak beste, beka lortzeko eskatzen den batez besteko nota igotzeko aukera, baita eman beharreko zenbatekoak murriztea ere.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela beka eskuratzeko ezarritako baldintzak lehengoratztea, ekainaren 29ko 100/2012 Errege Dekretua onetsi baino lehen indarrean zeudenak izan daitezen.

3. Nafarroako Parlamentuak baieztatzen du beka ikasketak egin ahal izateko baldintza-

berdintasunaren berme gisa erabili behar direla, eta arbuizatzen du zenbait pertsonak arrazoi ekonomikoengatik beren ikasketekin jarraitzeko aukerarik ez izatea, ezarritako baldintza akademikoak bete arren. Halaber, uste du beka ez direla erabili behar emaitza akademiko onei loturiko sari gisa; izan ere, horretarako bestelako bitarteko batzuk eratu beharko lirakeke.

4. Nafarroako Parlamentuak arbuizatzen du ikasleen arteko lehia-bideak ezartzea ikasleek beren beka osatu ahal izateko, eta uste du garrantzitsua dela ikasleak, laguntza eskatzean, jakitea zenbateko diru kopurua jasotzeko aukera duen.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du “Médicos sin Fronteras” erakundeak egiten duen lan humanitarioa eta elkartasuna adierazten die lan hori egitean erasoak pairatu dituzten pertsoneri.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du “Médicos Sin Fronteras” erakundeak egiten duen lan humanitarioa eta elkartasuna adierazten die lan hori egitean erasoak pairatu dituzten pertsoneri.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuizatzen ditu osasun arloko egituren aurkako erasoak, bai eta krisi humanitarioko egoeran dagoen populazioari laguntza humanitarioa helarazten saiatzen diren pertsonen aurkakoak ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bereiz dezan GKEek ematen duten laguntza humanitarioa jarduera militarretatik, saiheste aldera gatazkan bizi den populazioak laguntza hori ulertzea gatazkaren parte gisa, eta halatan bermatzeko lan humanitarioa askatasunez eta murrizketarik gabe egin ahal izatea, beharrean dagoen pertsona orori inpartzialki lagundu ahal izateko, gatazka-eremuetako edozein sektoretan.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du zenbait neurri abian jar ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Iragan otsailean Nafarroako Foru Komunitateko Enpleguari buruz egindako Osoko Bilkura monografikoan, foru parlamentariak aho batez onetsi zuten Ekonomia Dinamizatzeko Mahaia (Enpleguaren Mahaia izenez ezaguna) eratzea, eta, ondorioz, gure enplegu-mailaren eta jarduera ekonomikoaren egoera aztertze eta eztabaidatzeko aipatu gunea eratu zen.

Mahai horretan Nafarroako eragile ekonomiko eta sozial guztiek hartu dute parte, bai eta ekonomiarekin zerikusia duten erakunde eta entitate ugari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta parlamentu-talde guztiek ere bai. Hainbeste entitate, erakunde eta talderen ekarpenak izatea egiazki izan da interesgarria, garrantzitsua eta emankorra. Nafarroako Parlamentuak eskerrak eman nahi dizkie beren parte-hartze eta ekarpenengatik.

Bi hilabeteko jardunaren eta zortzi bileren ostean, adostasun bat lortu da zenbait parlamentu-talderen artean, zeinean hirurogeita hamar neurri baino gehiago jasotzen baitira, ekonomia dinamizatu eta enplegua sortu ahal izateko.

Adierazpen instituzionalerako proposamenak jasotzen ditu aipatu adostasunaren ondorioak eta proposamenak, eta sinatu duten parlamentu-taldeek eskatzen dute Mahaia eta Eledunen Batzarrak uztailaren 1eko bilkuran eztabaidatzea. Eskatzen dute, halaber, Legebiltzarreko zuzendaritza-organoek onetsiz gero, Nafarroako Parlamentuko hurrengo Osoko Bilkurak berrestea.

Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak ondoko neurriak abian jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko aldera.

### **Laneratzeko eta kontratazioak sustatzeko neurriak**

– “Ekintzailatza seniorra” babestea. 30 urtez beherakoei eta 50 urtez gorakoei zuzenduriko 4/2013 Errege Lege-dekretuaren bidez onetsitako neurriak zabaltzea.

– Praktiketako kontratuen lerroa, enpresetan prestakuntza jasotzeko. Aktibo finkoetarako laguntzak pixkanaka ordezkatzeko kopuru jakin batekin, lan munduan sartzea errazteko, urtebeteko epean.

– Pertsonentzako zerbitzuen sektoreko enplegua “azaleratzeko” neurri-programa, zerbitzu horiek legezkoa den moduan eskatzea sustatzeko neurrien bidez. Horrekin lotuta, aztertuko da ordenamendu juridikoan helburu hori lortzeko lagungarritzat jotzen diren neurriak sartzea.

– Gizarte enplegurako programa, udalekin lankidetzan.

– Eremu pribatuan lana banatzea sustatzeko programa pilotua, aldi berean lanpostu berriak sortzeko.

– Administrazioan norberaren borondatez lana banatzeko proposamenak (lanaldi partzialeko kontratuak eta errelebo kontratuak) aurkeztea Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean, bertan eztabaidatu eta negoziatzeko.

– EURES sarearen funtzionamendua bultzatzea (Europako esparruko enplegu zerbitzu publikoak), bai eta beste eremu geografiko batzuetakoak, beste herrialde batzuetan dauden aukerak gerturatze aldera langabezia dauden pertsonen.

– Lanbide Heziketa duala sustatzea eta Alemaniako eredu aplikatzea.

– Enpresek eskaeraren arabera prestakuntzaren sistema ahalik eta gehien erabil dezaten sustatzea.

– Elkarlaneko enpresa-ekimenak (bategiteak, xurgapenak, merkaturatze- edo nazioartekotze-plan baterakoak, erosketa-zentralak...) sustatzeko eta laguntzeko programa.

– Unibertsitateko ikasleen trukerako programa, ahalbidetzen dutenak goraka doazen herrialde handietako ikasleak iristea gure unibertsitateetara, Nafarroaren ezagutzarako lagungarriak izanen direnak, halako moduz non enpresen elkarlanerako eta etorkizuneko inbertsioetarako aukerak sor baitaitezke.

– Gazteentzako bermea abian jartzea, Europako funtsek finantzatuta, bereziki Europako Gizarte Funtzak eta kohesiorako bestelako tresna batzuek. Horren bidez bermatu nahi da 25 urte arteko gazterik ez egotea lau hilabete baino gehiago lanik, prestakuntzarik edo praktikarik gabe, eta 24 urtez beherako gazteek lanpostu bat edo praktika batzuk lortzea prestakuntza aldi bat amaitu eta gehienez ere lau hilabete igarota. (Berme hori 2014tik aurrera aplikatuko da eta Europar Batzordeak prestatutako 2014-2020 urteetarako Gazteen Enpleguari buruzko ekimen berriaren bidez indartuko da. Ekimen hori irekita dago % 25etik gorako gazteen langabezia tasa duten eskualde guztientzat.

### **Sektoreen garapena.**

#### Energia berriztagarrien sektorea sustatzea.

- Jarduketa berriak biomasaren sektorean (beroaren sorkuntza, berogailu eta ur berorako). Neurri horrekin berehalako lanpostuak sortuko dira (labore energetikoak, basoen garbiketa eta etxe eta enpresetako instalazioak).

- Funtz galdurako diru-laguntza bat ezartzea, % 10ekoa, industriaren beste adar batzuekin parekatze aldera.

- Ingurumeneko inbertsioekin parekagarriak diren zerga-kenkariak ezartzea (% 15).

- Haize-energiaren sektoreko instalazioak berri-tzea.

- Araudiak ematen dituen aukerak aztertzea instalazio berrietarako 0 tasako kanon elektrikoa ezartzeko. Hori finantzatzeko, egun daudenei zama handiagoa ezarriko litzateke instalazio zaharrenei (hamar urte edo gehiago dituztenei, eta, beraz, jada amortizatuta daudenei).

- Energia-ebakuazioari buruzko lehentasunak berresleitzea eta urtebeteko epea ezartzea ebakuazio berrietarako, eta, halaber, berriro ere lehentasuna ematea soberakinen ebakuazio-ahalmenari.

- Aztertzea zer aukera dauden “balantze garbiko energia-autokontsumoa” izenekoaren foru araubide bat egiteko, energia elektrikoa ekoizteko potentzia txikiko instalazioak (fotovoltaikoak eta haize-energiako txikiak) ekoizpenerako instalazio sarera konektatze aldera.

#### Ingurumena hobetzeko programa:

- Basoen zaintza eta landabideen eta mendibideen konponketa.

- Ibaiak, ibaiertzak eta naturguneak garbitzeko plana.

- Bi kasu horietan, kontuan hartuko dira, bereziki, gizarte enpleguoko programak.

#### Nekazaritzako elikagaien industria.

- Kooperatiben Legea aldatu eta eguneratzea, egungo merkatuen beharrezaneia eta erronkei aurre egiteko.

- Kooperatibak integratzeko plan berri bat prestatzea, lau urterako, merkatu globalizatu batean berdintasun baldintzetan lehiatzeko beharrezkoak diren tamaina, ahalmena eta bideragarritasuna emanen duena: bategiteak zuzenean sustatu; kooperatiben arteko akordioak, inbertsioak optimizatzeak; urtea igaro ondoren emandako diru-laguntzak, jada emandakoaren aurrekontua eginda; nekazaritzako makineria erabiltzeko kooperatibentzako laguntza zuzenen lerroa.

- Nafarroako ubidea Ubidearen obretarako beharrezkoak diren inbertsioen garapen iraunkorra denbora zehar.

- Nafarroako Ubidearen lehen faseko lurzatiak “hornitzea,” berehala ureztatu ahal izateko. Ureztalur horiek hornitzeko laguntzen lerroa.

- Behar diren lege- eta zuzenbide-baliabideak aktibatzea lehen sektorea sektore estrategiko gisa sustatzeko, eta merkataritzarako bide zuzenak sortzeko, Nafarroako produktuen kontsumoa eta merkaturatzea aldezteko eta bi sektore horietan enpleguaren garapena sustatzeko.

- Produktuen salmenta zuzena arautzen duen foru legea garatzea.

- Laguntzen deialdia egitea nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeak berrizatzeko eta nekazari gazteen lehen instalaziorako.

#### Energia.

- Energia berriztagarriak sustatzeko programa, zeinean jasoko baitira sektoreko I+G+Bko lerro bat, Ekonomia Berdearen barruan, bai eta Nafarroan energia eolikoko eta bestelako iturri berriztagarrien kokalekuen plangintza sektorialerako tresna bat prestatzea eta izapidetzea ere. Tresna horren prestatetan sektoreko enpresek hartuko dute parte eta haren ezarpen azkarra sustatuko da.

#### Eraikuntza.

- Eraikinak zaharberritzeko plan integrala, efizientziari eta energia aurrezteari lotuak.

- Hirigintza garapen iraungarriari buruzko foru lege baten prestatzea parte-hartzailea, egungo



eredua gaudituko duen eta hirien birsorkuntza eta zaharberritzea eta hiri iraungarria sustatuko duen garapenerako eta lurralde-okupaziorako eredu berri bat ezartze aldera, eta, halaber, hirigintzako plangintzak egiteko eredu berri bat epe ertain eta luzerako, halako moduz non lurzorua eta etxebizitzaren gaineko espekulazioa saihestuko baitute eta hiri eraikia eta trinko, iraungarri eta sozialki integratuaren eredu sustatuko baitute.

– Eraikuntza iraungarriaren eredu berri baterako hitzarmen soziala, ekonomia berdearen esparruan, eta etxebizitza eredu berriak sustatzea, egungo dinamika gaudituko dutenak eta hiri-berrikuntzako, eraikuntza-hobekuntzako prozesu integralak, hura iraungarriagoa egite aldera, eta eraikuntza eredu berriak sustatuko dituztenak. Eraikinen Ikuskapen Teknikoa arautzea Nafarroan eta haren aplikazioa sustatzea.

– Bultzada publikoa ematea araudiak egokituta eta lurzoru publikoa eskuragarri jartzea eraginkortasun eta efizientzia energetikoa integratuta duten etxebizitza esperimentalen ereduak ikertu, zabaldu eta eraikitzeke proiektuetarako.

– Bide publikoen eta errepideen zorua berri-tzeko programa.

– Alokairu sozialerako etxebizitzaren programa, berriazko inbertsio-funtsak erabilita.

#### Ekonomia soziala.

– Ekonomia sozialerako laguntza-programa eta ekonomia sozialeko enpresen sorkuntza sustatzea.

#### Turismoa.

– Egungo sarea sustatzea eta “turismo zuria”, “gorabidean dagoen turismoa” eta abarrak bultzatzea.

#### Nazioartekotzea.

– Nafarroako ekonomia nazioartekotzeko programa. Esportazio-jarduerak sustatzea.

– Nafarroako enpresak nazioartekotzeko estrategia berria. Kanpoan jarduteko eta abarretarako, partzuergo, lankidetzak, eta enpresen elkartegintzarako formulak sustatzea. “Nafarroa-iraungarritasuna-kalitatea” ideia edo marka sustatzea nazioarteko erreferente gisa lurraldearen kalitatezko erabilerari eta bizi-kalitateari, energia berriztagarriari, iraungarritasunari, etxebizitza publikoari, eraginkortasun eta efizientzia energetikoari, ingurumenaren kalitateari, azpiegitura eta dotazioei, ureztaketari, hondakinei eta abarrei dagokienez, ahalbidetuko dietenak Nafarroak enpresei alor horietan abal publiko bat izatea, bai eta kanpoan

Nafarroako nekazaritzako eta industriako produktuen marka bat izatea ere.

– Programa horren xedea izanen da esportaziorako oinarria handitzea; hau da, enpresa gehiago sartzeko esportazio-jardueran. Honakoak izanen lirateke neurriak:

– Nazioartekotze azeleratuko enpresentzako berriazko laguntzarako programa. Programak enpresei lagunduko lieke, nazioartekotzearen etapa guztietan, aholkuekin, prestakuntzarekin eta kanpoan bazkideak bilatuz.

– Nafarroako enpresen tamaina txikiarekin lotutako arazoak gaintzen laguntzeko enpresa-sareak sustatzeko programa. Honela zehaztuko da:

– Enpresa txiki eta ertainen esportazio-partzuergoak eratzeke eta funtzionatzeko laguntza.

– Cluster politika bat garatzea; hau da, enpresen sareak sortzea, birtual nahiz fisikoak, negozio-sailetan interes partekatuak dituztenak.

– Enpresa esportatzaileen eta jarduera horretan hasten direnen arteko lankidetzak programak diseinatzea.

– Enpresen integrazioarako prozesuen aldeko giroa sortzea.

– Europar Batzordeak sustatutako enpresa-lankidetzarako programak indartzea.

– Esportazioko eta nazioartekotzeko aukeren atari bat sortzea. Atari horretan, informazioa eman da dauden aukera desberdinei buruz. Informazioa, bereziki, nazioartekotze diren enpresen eza-gupenekin eta esperientziekin elikatuko litzateke.

– Business Angels-en foru sare bat garatzea, zeina lehendik dauden sare nazionalen eta Europako sarean integratuko baita. Hartara, inbertsio-egileen eta ekintzaileen arteko hartu-emanak sustatuko da, eta finantziatorako laguntza emanen da, enpresa-proiektu berriak abian jartzeko.

#### **Finantzaketa-neurriak eta ekonomiaren dinamizazioa erraztekoak**

##### Inbertsio publikoaren finantzaketa. Herri lanak.

– Aurrekontu orokorretan gutxienezko zenbateko bat ezartzea azpiegituren mantentze teknikorako.

##### Ondarezko diru-sarrerak maximizatzea.

– Sozietate publikoen edo administrazio publikoen partaidetza dutenen aktiboak eta ondasunak saltzea, Administrazioak izan dezan berpizte eko-

nomikorako jarduketak abian jartzeko beharrezkoa den dirua.

#### Inbersio-funtsak biltzea.

– SODENAREN jarduerak nazioarteko inbersio-funtsak biltzera bideratzea eta jarduera horiek sustatzea –proiektu industrial berriak, reale estate, edo jadanik badauden produkzio-proiektuak kapitalizatu eta sendotzeko tresnak.

– Finantza-inbersio berrietarako tratamendu fiskala hobetzea, enpresak sustatzeko sozietateei eta arrisku-kapitaleko sozietateei jatorrian aplikatzen zaizkien kenkaria handitua.

– Inbersio-funtsak kudeatzen dituzten sozietateen zerga-zama murriztea.

#### Enpresen likideziari laguntzea, BEZa aurreratu-ta.

– Abal-sistema, enpresei ahalbidetuko diena BEZaren itzulketari dagozkion zenbatekoak deskontatzea entitate finantzarioetan, halako moduz non Administrazioari aurrerapenaren zama kenduko zaion, diru hori beste neurri batzuetara bideratu ahal izateko.

#### Nazioartekotze-prozesuaren finantzaketa.

– Nafarroako enpresek kanpoan lizitazioak lortzeko erraztasunak ematea, haien finantza-arriskua handitu beharrik gabe, ICO, ICEX eta CESCE erakundeekin lankidetzan. Xedea da nazioartekotze-prozesuetan erabiltzen diren abal finantzarioak abal tekniko bihurtzea, eta, hala, azkartasun eta abal kopuru handiagoa lortzea.

– Nazioartekotzerako zerbitzu-sorta bat ematea enpresei, baldintza mesedegarrien bidez finantzatuta.

#### Kreditua eta enpresa-jardueren finantzaketa erraztea.

– Enpresa-jardueren finantzaketa sustatzea, Sodenaren jarduketa bultzatuta, eta finantzaketa publiko eta/edo publiko-pribaturako tresnak sortzea –balizko agentzia orokor bat, esaterako–, toki entitateen eta inbertitzaile pribatuen parte-hartzeari irekita egonen direnak.

– Enpresa-jarduketan finantzaketalehentasunezko xedea gisa duten entitate pribatuen sorrera erraztea.

– Hitzarmen bidez bultzatuko da Nafarroako enpresek ahalik eta gehien baliatzen dituzten BEIren inbertsioaren 200 milioiak.

– Halaber, enpresa-proiektuak abalatzeko egin-kizuna izanen luke, arriskuak aztertu ondoren.

– Sodenak eta finantza-entitateek sinatutako akordioaren baldintzak aldatzea, halako moduz non Nafarroako Gobernuak entitate bakoitzarekin egiten dituen balizko mailegu-eragiketetan bere gain harturiko batezbesteko arriskua areagotuko den eta zirkulatzailerako abalen lerrorako eskuragarri dagoenaren muga igoko den.

– Berariazko abal-lerro bat ezartzea diruzaintzako zailtasunak dituzten enpresa bideragarriak berregituratzeko prozesuak laguntzeko.

– Enpresa txiki eta ertainen finantzaketa. Nafarren aurrezkoa Nafarroako enpresen finantzaketara bideratzea ziurtatuko duten prozedurak hitzartzea Foru Komunitatean kokaturiko entitate finantzarioekin. Finantzaketa hori eraginkortasun baldintzetan egin beharko da; izan ere, erabakiguneak Foru Komunitatearen esparrutik urrundu egin dira.

#### Administrazioa erraztea.

– Aldez aurreko baimen asko ondorengo kontrol bihurtzea. Horren xedea da izapidetze-denbora erdira murriztea. Salbuespen gisa, ezinbestekoa den kasuetan, aldez aurretiko baimena izanen da administrazio-kontrola gauzatzeko baliatuko den mekanismoa.

– Enpresen eta negozioen titulartasuna aldatzeko administrazio-eskakizunak erraztea.

– Leihatila bakarra sustatzea enpresen sorkuntzarako, egun dauden administrazio-unitate eta-prozedurak egiazki bateratuko dituen, bai eta Europar Batasunetik datozen laguntzak eta Europako Inbersio Bankuaren finantzaketa eskuratu ahal izateko.

– Administrazioaren informazio- eta koordinazio-sistemak hobetzea. Espediente eta enpresa bakoitzerako beharrezkoa den dokumentazioa era zentralizatuan kudeatzea. Espediente bakarra administrazio guztietarako.

– Enpresen sorkuntza eta lurraldean jarduera ekonomikoak sortzea arautzen duten araudi eta legedi sektorialak berrikustea, haien koordinazioa eta sinplifikazioa errazte aldera. Horren xedea da jarduera ekonomikoak baimendu eta ezartzeko prozedurak arintzea, lehiakortasunerako eta segurtasun juridikorako lagungarriak izateko.

#### Nafarroan produzitzen duen atzerriko inbertsioa bildu eta atxikitzea.

– Atzerriko Inbersio Zuzenerako Estrategia ezartzeko azterketa. Besteak beste, neurri fiskalak ezartzea, salbuespen-aldiak aurreikusiko dituzten sozietateen gaineko zergan atzerriko kapitalarekin enplegua eta oinarri teknologikoa duten

enpresak sortzera bideratutako kapital inbertsioetatik eratorritako etekinei dagokienez, betiere enplegua ziurtatzen badute. Salbuespena

– AHTaren eta horrek Tuteran, Iruñean eta Sakanan dakartzan garapen logistikoen aldeko apustua.

– Banda zabalaren zabalkundea. Industrialde eta herri guztietara hedatzea.

– LHren eredu dualaren aldeko apustua.

– Giza baliabideak jartzea atzerriko enpresak eta inbertsioak bildu eta Foru Komunitatera erakartzeko.

– Kanpaina eta bisita instituzionalak, Nafarroako eragile ekonomiko interesdunekin batera, merkataritzarako eta inbertsioak biltzeko xedea dutenak, eta, bestalde, “Nafarroa” markaren balioa nabarmentzea.

– Patenteen mapa bat egitea, ezagutzera emateko zein arlotan eta zein tokitan ari den ikertzen Foru Komunitatean, interesa duten balizko inbertitzaileek jakin dezaten eta inbertitzeko aukera izan dezaten.

– Inprimatze funtzionala sustatzea arte grafikoen sektorean.

#### Hazkunde ekonomikorako fiskalitatea.

– Abal, diru-laguntza, onura fiskal eta enpresa-jarduerei ematen zaizkien bestelako laguntza esparruaren azterketa orokorra egitea, ekintzailetza eta enplegua sortzea eta mantentzea susta-

tzeko fiskalitate bat diseinatze aldera, etorkizuneko neurri fiskal guztiak jasoko dituen. Horrekin lotuta, eta kontrataziorako laguntza zuzenen garrantzia aztertzerakoan, bereziki baloratuko da familia-zama handiena duten 45 urtetik gorako langabetuen kontratazioa, eta familia-zama neurtzeko kontuan hartuko dira seme-alaba kopurua, langabetuaren zaintzapeko aurreko ahaideak eta ezgaitasunen bat duten pertsonak. Bai eta akzioak harpidetzeko edota jada daudenen kapital-zabalkundeetarako egiten diren diru-ekarpenen kenkaria –egun, enpresa berrietarako– ere.

– Zero kostua jarduera berriak eratu eta abian jartzeko gastuei dagokienez. Udal- eta eskualdetasak kentzea aztertzea. Notariotzari eta dokumentazio tekniko eta hirigintzakoari dagozkien gastuak PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketatzat hartzea.

– Enplegua mantentzeko zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko neurriak: sozietateen gaineko zergan eta PFEZean ordaindu beharreko kuota eta errenta-atxikipenak hamabi hilabetez atzeratzeko aukera, egoera ekonomikoa justifikatzen duen oroitidazki bat aurkeztu ondoren.

Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen negozioen bategite, xurgapen eta erosketak erraztea, prozesu horiek sustatuko dituzten neurri fiskalen bidez.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak esku-hartze aktiboa izan dezan, INASA enpresaren egungo jabearen eta inbertsio-taldearen arteko akordio bat ahalbidetzeko.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak esku-hartze aktiboa izan dezan, INASA enpresaren egungo jabearen eta inbertsio-taldearen arteko akordio bat ahalbidetzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, inbertsio-taldearen azken eskaintzaren ondoren beharrezkoak diren

zuzemenak egin ditzan makineriaren salmenta geldiarazteko, eta bitartekaritza lana egin dezan INASAREN eskualdatzeari dagokionez.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eskura dituen bitarteko guztiekin bultzada eman diezaion Irurtzongo lan-tegia berriz irekitzeko helburuari, eta kontuan har dezan, baita ere, enpresa-proiektu berrian inbertitzaile gisa parte hartzeko aukera.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak positiboki baloratzen du Polizia Kidego Nazionaleko eta Guardia Zibileko funtzionarioek urteetan eginiko lana.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Polizia Kidego Nazionaleko eta Guardia Zibileko funtzionarioek urteetan eginiko lanaren balorazio positiboa; izan ere, oso aurkako baldintzetan, beren bizia arriskuan jarri zuten Nafarroan, askatasunaren eta demokraziaren defentsan eta terrorismoaren aurkako borrokan.

2. Interes eta justizia handikoa izanzen litzateke Barne Ministerioak bidezkoak diren legez-aldake-

tak egitea, Nafarroan hamabost urtez era jarraituan edota azken hogeitun urteetan lan egin duten Polizia Kidego Nazionaleko eta Guardia Zibileko kideei kondekorazio edo domina bat eman ahal izateko. Halaber, legedia aldatu beharko litzateke haien lansari baldintzak aldatzeko eta, gutxienez, Espainiako beste edozein tokitan gehiago irabazten duten maila bereko funtzionarioen lansari-baldintza berak ezartzeko.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera